

# Aramaioko hizkera\*

JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA\*\*

## ATARIKOA

Aramaioko euskara aztertzea aspaldiko asmoa banuen ere, oraintsu arte ez dut asmo hori burutu. Gaztetatik hasia nintzen gurasoei (batez ere amari) entzuten nizkien bitxikeriak apuntatzen. Baina lexikoari zegozkion kontuak ziren ia erabat. Eta urrats bat gehiago eman beharra zegoen. Eta hasi nintzen, hasi, baina baita ere garbatu zitzaidan lehenago ez ekin izana. Izan ere, lan honen helburua adinekoen euskara jasotzea eta aztertzea izanda, duela 20-25 urte egin izatera, ziur asko zerbait desberdina zatekeen. Ezaugarri nagusietan, beharbada, ez da aldaketa handirik gertatu Aramaioko euskararen belaunaldi batean, baina bizimodu-aldaketak eta erdararen eraginak bere lana egingo zutela ez dut dudarik. Hori adinekoen artean. Zer esanik ez belaunaldi gazteagoen artean, horiengan euskara batuak ere eragin eskerge izan dukeelarik.

Azterketa honetan ez da egin gaur egun Aramaioko hitzun guztiek egiten duten euskararen argazkia. Argazki partziala da: soilik adinekoen euskara aztertu da. Beraz, desagertzearen eta neurri handi batean desagertu den bizimodu baten lekuko izan direnen euskara. Arkeologia-lana, hein handi batean.

Sarreran, Aramaiori buruzko zenbait datu eman ondoren, lana egiteko erabili den metodologia eta oinarri teorikoak erakusten dira.

Ondoren dator Aramaioko hizkeraren azterketa linguistikoa, honelako lanetan bereizten diren atalak landuz: 1 Fonologia, 2 Izenaren morfologia, 3 Aditzaren morfologia, 4 Morfosintaxia. Hemen, labur-beharrez, ezaugarri nagusiak baino ez ditugu aipatuko.

Azkenik, ondorio nagusiak ematen ditut, atal hauek bereiziz: Aramaioko hizkeraren kokagunea, eta Aramaioko euskararen eta Oletakoaren arteko desberdintasunak.

\* Artikulu honetan 2005eko ekainean Gasteizko Filologia Fakultatean irakurritako tesiaren laburpena eskaintzen da. Tesiaren izenburua: *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*.

\*\* Euskal Herriko Unibertsitatea.

## SARRERA

Sarrera honetan labur-labur adierazi nahi genuke zertxobait ikergaitzat hartu dugun herriari buruz, eta lanaren nondik norakoak agertu. Horretarako zenbait puntu bereiziko ditugu.

## 1. Aramaio: zenbait datu

Esan dezakegu Aramaio nahiko bakartua dagoela (eta batez ere lehenago egon dela). Izan ere, alde guztietatik mendiz inguraturik dago. XV. mendearen hondarrera arte Bizkaia izan zena, harrezkero Araban dugu, baina Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin muga eginez. Lurrez herri handia denez, beste herri askorekin mugatzen du: Araban Legutianorekin, Bizkaian Abadiño, Otxandio eta Atxondorekin, eta Gipuzkoan Arrasate, Aretxabaleta, Eskoria-tza eta Leintz Gatzagarekin.

Pentsatzekoa da historian zehar herri horiekin guztiekin hartu-eman izan duela, batzuekin besteekin baino gehiago. Orografia kontuan hartuz, komunikazio-aukera errazagoak ditu Gipuzkoarekin Araba eta Bizkaiarekin baino.

Koldo Zuazori kasu egitera, Debagoienak mendebaleko euskararekin duen gertutasuna Arabarekin izan dituen hartu-emanen ondorioa da, eta ez Bizkaiarekin izan dituenengatik (Zuazo 1999c: 93):

Gasteiz izan da, eta Gasteiz da, leintzarrak, aramaioarrak eta oñatiarrak gertuen izan daben herri haundixa. (...). Eta Gasteizen mendebalekua ez dan euskalkiren bat erabili bazan, Debagoienan be izango zan horren oihartzuna. Eta, esan dogunez, oso bestela dira gauzak, duda barik Gasteizen bertan be mendebaleko euskeria egitten zan señale.

Eta horren erakusgarri, Debagoieneko euskararen eta Arabakoaren artean zenbait ezaugarritan dagoen kidetasuna aipatzen digu (Zuazo 1999c: 93-94).

Garai berriagoetara etorritik, eta Gasteiz inguruan euskara galtzen joan ahala, hizkuntzako eragina gutxitzen joango zen. Baina, ematen duenez, Arabako berrikuntza asko inguru honetara iritsi ziren, eta gaur egun ere hor dira. Izan ere, eta nahiz eta Deba ibarreko herri askotan gipuzkeraren eta erdialdeko euskalkiaren eragina nahiko handia izan, Debagoiena eragin horietatik aparte samar geratu da. Eta Aramaio are aparteago. Baina ez erabat aparte, ikusiko dugunez.

Bestalde, Aramaio Leintzeko herriekin izan duen hartu-eman handia izan da, eta hori hizkuntzan ere nabaritzen da. Gure erkaketaren arabera, kidetasun berdintsua erakusten du Leintzeko herri guztiekin. Beharbada, pentsatzekoa da hartu-eman handiena Arrasaterekin izan duela (bai antzina, bai garai modernoagoetan, batez ere XX. mendetik aurrera), baina hizkuntzan ez dut ikusten beste herriekiko baino kidetasun handiagoa. Hartu-eman sakon horren berri J. M. Velez de Mendizabalek eman digu bere *Aramaio eta Arrasate. Historiak lotutako bi herri* liburu interesgarrian. Erdi Aroko garai ilunetan hartu-emanak sarritan gorrotzokoak izan baziren ere (Arrasateko 1448ko erreketak, etab.)<sup>1</sup>, Velez de Mendizabalek dioskunez, mendeetan nekazaritza

<sup>1</sup> Jauntxokeriak eraginak: "Arrasate eta Aramaioaren arteko gizaldietako harreman gaiztoak ez ziren herri xehearen erruarengatik gertatu, bietan agintzen zutenen jokaera zitalarengatik baizik" (Velez de Mendizabal 2003: 70).

eta abeltzaintza izan ziren bateko eta besteko bizilagunen arteko hartu-emanaren lotura. Denborarekin Arrasateko industria indartu ahala, eta batez ere XX. mendean, hartu-emanak biderkatu egin ziren: “Union Cerrajera, Elma eta XX. mendearen lehen erdialdeko Arrasateko beste lantegietara, goizero berrehun aramaioar baino gehiago ailegatzen ziren” (Velez de Mendizabal 2003: 111). Eta berrehun pertsona asko zen horrelako herri txiki batean.

Ez da ahaztu behar ere baserritar asko hamabostean behin Arrasateko *ferrixara* jaisten zirela.

Historian zehar beti (eta orain ere bai) Aramaiotik Arrasaterako jariora alderantzizkoa baino handiagoa izan da. Azken urteetan, ostera, badira Aramaioarako joera hartu dutenak, bizimodu lasaiago baten bila.

Eta kontu historiko horien ondoren, eman ditzagun gaur egungo zenbait datu.

### Bizilagunak

XX. mendea hartzen badugu kontuan, Aramaion bizilagun-kopuruak etengabe behera egin du, mende osoan 700 bizilagun inguru galduz. Azken 5 erroldetako datuak hauexek dira:

| 1981  | 1986  | 1991  | 1996  | 2001  |
|-------|-------|-------|-------|-------|
| 1.438 | 1.342 | 1.310 | 1.345 | 1.466 |

### Ekonomia

Aramaio beti lurrari lotua egon da. Mende luzez nekazaritza eta abeltzaintza izan dira bizibide nagusiak, baina aspalditxotik industria da nagusi. Baina bertan ez dago industriarik. Aramaioar asko eta asko egunero Arrasatera doaz kooperatibetan lan egitera.

### Hedadura

Aramaio lurrez herri handia da, ia 74 km<sup>2</sup> ditu. Esaterako, mugakide den Arrasaterekin alderatuz gero, askoz handiagoa (Arrasatek 32 km<sup>2</sup>).

Aramaio udalerria 9 auzok osatzen dute. Zenbait auzotan badira entitate txikiagoak, auzune deituko ditugunak.

**Ibarra** da udalerriaren burua. Bertan bizi da bizilagunen erdia. Kalealdeaz gain, *Eguzkierripa* eta *Arraga* baserri-auzuneak daude barruan.

Gainerako auzoak baserri-auzoak dira:

#### Gantzaga

#### Etxaguen

**Arexola:** *Arriola* eta *Arexola*.

**Uribarri:** *Uribarri*, *Zubieta* eta *Gureia*.

#### Oleta

**Azkoaga:** *Altzaga*, *Azkoaga* eta *Zabola*.

#### Barajuen

**Untzilla:** *Untzilla* eta *Suiña*.

Aipamen berezia merezi du **Oleta** auzoak. Aramaioko burutik, **Ibarratik** urrunen dagoen auzoa da. Administrazioz Aramaio izan arren, haien bizitza eta hartu-emanek Otxandioarekin dute zerikusi askoz handiagoa Aramaiorekin baino.

Gu hemen gehien kezkatzen gaituena hizkera denez, esan behar da horretan ere Oleta bereizirik geratzen zaigula. Aramaioko hizkerak Leintzeko herrietako euskararekin du ahaidetasuna, baina Oletakoak ez, Oletako hiz-

kera bestelakoa da. Pujanaren (1975: 53) iritziz, bestelakotasun hori batez ere fonetikan eta alokutiboan islatzen da:

Aramaioko izkera ta Oletakoa, biak dira bizkaiera. Bada, ala ere, nabarmen-nabarmen agertzen zaigun alderik. Fonetikan eta ikako aditz-joaketan, batez ere, bestelakoak ditugu.

Hori guztia dela eta, gure azterketarako Oleta alde batera utzi dugu. Gainerako auzoak hartu ditugu geure lanaren eremutzat, eta nagusiki baserri-auzoak. Bestalde, Aramaiorako esandakoak Leintzeko herrietarako ere balio du gehienetan.

## 2. Aramaioko hizkera

Ez dago zalantzarik: Aramaioko euskara gaur egun *mendebaleko euskara* deitzen den euskalkian sartu behar dugu. Edo orain arte *bizkaiera* deitu izan den euskalkian.

Louis-Lucien Bonapartek XIX. mendean Aramaio *bizkaiera*-ren Gipuzkoako azpieuskalkian sartu zuen, eta horren barruko bi hizkera-multzoetatik (Bergara eta Gatzaga) Gatzagakoan. Pedro de Yrizarrek zehatz aztertu zituen Bonapartek XIX. mendeko 60. hamarkadan egin zituen euskalkien sailkapenak. Yrizarrek lau sailkapen bereizi zituen. Aramaioko hizkerari dagokionez, lehen sailkapenetik (1861-63) Gatzagako hizkera-multzoan sartu zuen, eta hurrengo sailkapenetan ez zen aldaketarik izan.

Jakina, Bonaparteren azken sailkapenean (1869) bada aldaketa bat: lehen Bergarako hizkera-multzoa ekialdeko azpieuskalkian sartu zuen, eta Gatzagako mendebalekoan, eta gero hirugarren azpieuskalki bat bereizi zuen, Gipuzkoakoa, Bergarako eta Gatzagako hizkera-multzoek osatua.

Ondorengo autoreak (Azkue nabarmenena) Bonaparteri jarraitu zitzaizkion.

Yrizarrek bere aditzari buruzko lanetan (Yrizar 1992) Gatzagako hizkera-multzoan bi azpimultzo bereizi ditu: a) Berezkoa (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate), eta b) Aramaiokoa. 1970ean Aramaion 1.250 euskaldun inguru zegoen Yrizarren arabera (azken 30 urteetan ez da ia aldatu kopurua: 1.216 euskaldun 2001eko erroldan).

Berriki, Koldo Zuazok aztertu du Deba ibarreko euskara (Zuazo 1999c; Zuazo & Badihardugu 2002), Aramaio ere barruan dela. Deba ibarreko euskaran hiru multzo bereizi ditu, 15 herri kontuan hartuz: 1) Debagoiena; 2) Debaerdikoa, eta 3) Debarrena. Eta Debagoiena multzoan bi azpimultzo:

a) Leintz-Aramaiokoa: Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaio (Oleta auzoa izan ezik).

b) Oñatikoa.

Hortaz, Oleta alde batera utzita, eta lanean frogatu uste dugunez, Aramaio eta Leintzeko euskarak badu batasun bat, herrien artean dauden desberdintasun urriak gorabehera.

## 3. Euskararen ezagutza eta erabilera Aramaion

Esan beharrik ez dago Aramaio Arabako herri euskaldunena dela. Legutiano aldera duen mendateak izugarri geldiarazi du euskararen atzerapena. Konparatu, bestela, Legutianon euskarak duen egoera eta Aramaiokoa.

Horra datu batzuk:

### 3.1. Aramaioarren euskararen ezagutza

|                      | 1981   | 1986   | 1991   | 1996   | 2001   |
|----------------------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Bizilagunak          | 1.341  | 1.280  | 1.251  | 1.282  | 1.421  |
| Euskaldunak          | % 82,7 | % 89,2 | % 87,0 | % 87,4 | % 85,6 |
| Elebidun hartzaileak | % 4,8  | % 4,1  | % 5,9  | % 6,7  | % 8,8  |
| Erdaldun elebakarrak | % 12,5 | % 6,7  | % 7,1  | % 5,9  | % 5,6  |

Goiko taulan ikusten denez, nabarmenena da 1981etik 1986ra euskaldunen kopurua gehitu bazen ere, 1986tik 1991ra jaitsi egin zela (EAEn, ordea, gorakada gertatu zen, handiagoa lehen bosturtekoan bigarrenen baino). 1991tik aurrera euskaldunen kopurua zertxobait jaitsi da, eta elebidun hartzaileena igo.

### 3.2. Aramaioarren euskararen erabilera

Ditugun datu berrienak aipatuko ditugu hemen. 2001az geroztik SEI elkartek hartu du euskararen kale-erabileraren neurketen ardura. Aramaion 2001ean eta 2003an egin dira kale-neurketak. Hona bi kale-neurketen emaitza nagusiak: 2001ean % 63,82 eta 2003an % 61,88. 1993an baino erabilera handiagoa, baina ez guztiz pozik egotekoa. Adin-taldeen erabilerari begiratuz gero, haurrak dira erabilera handiena erakusten dutenak; helduak, ostera, txikiena. Datu esanguratsuak direlakoan, hona adin-talde bakoitzaren erabilera-datuak:

|           | 2001    | 2003    |
|-----------|---------|---------|
| Haurrak   | % 84,23 | % 79,88 |
| Gazteak   | % 81,13 | % 69,52 |
| Helduak   | % 48,18 | % 45,04 |
| Adinekoak | % 60,87 | % 65,14 |

2001etik 2003ra, adinekoen artean izan ezik, beherakada gertatu da. Deigarriena helduek erakusten duten erabilera urria da, hain zuzen herrian eragin handiena duen taldea dela kontuan izanda.

## 4. Lanaren nondik norakoak

### 4.1. Grabazio libreak

Uste dut lan honen baliorik nagusietakoa honetan datzala: adibide gehienak librean egindako grabaketetatik jaso dira. Ez dut behin ere adibiderik asmatu. Denak dira lekukoek, berriemaileek esanak.

Grabazioak ahalik eta tresneria egokienarekin egin behar dira. Hala izanik ere, transkripzio zehatzak egitea ez da beti erraz gertatzen, eta hauek ondo egitea beharrezkoa da ondorio onak lortzekotan. Nik MINIDISK grabagailu digitala erabili dut.

Grabazio libreetan elkarrizketa izan da erabili dugun metodoa. Gehiengan banaka, baina inoiz binaka ere bai. Gaiak lekukoek bizitzari eta langintzari lotuak: nekazaritza, soldadutza, gerra zibila, jaiak, erlijioa, ohiturak...

Material honek, hizkeraren azterketa egiteko oso baliagarri izateaz gain, herria bera hobeto ezagutzeko ere laguntzen du.

#### 4.2. Inkestak

Baina honelako lanetan zerbait ibili denak ondo daki grabazio libreetatik ezin dela dena jaso. Horregatik, eta batez ere deklinabidea, aditza eta, maila txikiagoan, sintaxia osatzeko inkesta edo galdetegi zehatzak egin ditugu. Hemen nagusiki itzulpenaren bidea erabili dugu, guk erdaraz eta berriemaileek euskaraz. Ez da bide naturalena, baina nahitaezkoa zenbait informazio eskuratzeko. Hala eta guztiz ere, sarritan elkarrizketa librea eta galdetegi zehatza tartekatu ditugu. Izan ere, adinekoek librean aritzeko arazo handirik ez badute ere, inkesta soila asko luzatzen bada, nekagarri gertatzen zaie.

Aramaioko euskara inguruko herrietako euskararekin ere erkatu nahi izan dugu, eta horretarako inkesta baliatu dugu. Lehenbiziko lana, hain zuzen, inkesta hori prestatzea izan da. Ez da lan erraza gertatu, zalantzak ugari baitira: zenbat ezaugarri aukeratu, zein arlori (fonologiari, aditzari, lexikoari...) eman lehentasuna edo denekin berdintsu jokatu, ezaugarrien arteko hierarkiarik ezarri ala ez, etab.

Inkesta egiteko, lehen-lehenik ezaugarriekiko zerrenda bat osatu dugu, bost arlotan banatua: 1) Fonologia-fonetika, 2) Izenaren morfologia, 3) Aditzaren morfologia, 4) Morfosintaxia eta 5) Lexikoa. Abiapuntua aztertua genuen hizkera, Aramaiokoa, izan da. Hor azaldu zaizkigun ezaugarri nagusiak zerrendatu ditugu hasteko. Eta gero osatzen joan gara. Horretarako, Gotzon Aurrekoetxearen tesia (*Bizkaieraren egitura geolinguistikoa*, 1995) baliagarri gertatu zaigu, eta baita ere egile beraren "Hizkerak banatzeko ezaugarriez" artikulua (Aurrekoetxea 1996). Lan horiez gainera, Koldo Zuazok *Deba ibarreko euskeria* (Zuazo 1999c) liburua burutzeko erabili zuen inkesta ere oso kontuan eduki dugu, eta baita ere Zuazok eta Badihardugu Euskera Alkartiak 2002an argitaratu zuten *Deba ibarretik Euskararen Herrira* liburuan aipatzen diren ezaugarriak.

Ezaugarriak direla eta, aspaldiko auzia da zein den ezaugarrien balioa eta ea haien artean hierarkiarik ezar daitekeen edo ez. Gamindek (2002: 4) berriki egin du galdera hori:

Beste alde batetik honen guztiaren inguruan bada beste itaun bat, nire ustez, garrantzitsua dena, ezaugarri guztiek berdin balio dute? Edo beharbada hierarkia bat eraiki behar da euren artean eta hierarkia horren arabera erkatu?

Gure aukeraketan saiatu gara lehentasuna ematen aldaketa erabatekoa erakusten duten ezaugarriei. Esate baterako, fonologian askoz garrantzitsua-gotzat jotzen dugu A > E / I, U \_\_\_ araua hitz batzuetan *i* eta *u* bokalen artean gertatzen den txandaketa (*ile/uile*) baino. Kasu honetan, biak sartu ditugu galdetegian, baina lehena ezaugarri berezitzat jotzen dugun bitartean, bigarrena aldaera lexikotzat hartu dugu.

#### 4.3. Berriemaileak

Berriemaile edo lekukoak Aramaioko adintsuenen artean aukeratu ditugu.

Grabazio gehienak 1996-2001 bitartean egin dira.

Oleta eta Leintzeko inkestak egiteko, honela jokatu dugu: herri bakoi-tzean lekuko bakarrari egin diogu inkesta, nahiz eta kasuren batean lekuko

nagusiaren ondoan beste bat ere egon den eta zenbaitetan parte hartu duen. Lekuko guztiak helduak izan dira, gehienak 70 urtetik gorakoak.

Grabazio guztiak 2003an egin dira.

## 5. Oinarri teorikoak

Gure helbururik behinena, baina ez bakarra, Aramaioko euskararen azterketa ahalik eta zehatzena egitea izan da. Arlo guztiak aztertu baditugu ere, ez denak maila berean. Fonologiaren azterketari eman diogu lehentasuna. Izan ere, fonologian agertzen da ezaugarri-kopuru handiena. Fonologiari dagokionez, azken hamarkadan egin diren tesiak eta azterlanak (Hualde & Elordieta & Elordieta 1995, Ibarra 1995, Camino 1997...) kontuan hartzeaz gain, fonologiaren azterketarako Mohanan (1986) eta Hualderen (1991) lanetan oinarritu gara. Fonologia lexikoaren kontzepturik garrantzitsuenaren estratuarena (*stratum*, ingelesez) iruditu zaigu, eta geure lanean aplikatu nahi izan dugu.

Funtsean, fonologia lexikoaren arabera, arau fonologikoak hainbat modulutan aplika daitezke: modulu lexikoan, modulu postlexikoan, edo bietan. Eta arauak aplikatzeko, hauek dira printzipio nagusiak: 1) Morfologia-informazioa behar duen araua lexikoan aplikatu behar da, eta arau lexikala deituko diogu; eta 2) Hitzen artean aplikatzen den araua postlexikoki gertatu behar da, eta orduan arau postlexikala izango da.

Fonologiaren eta morfologiaren arteko elkarreragina nabarmena da. Hala, fonologia lexikala oinarritzen den hitz-eraketaren teoria morfologia lexikala da. Eta morfologia lexikalaren arabera, eragiketa morfologikoak (ad. afizazioa, hitz-elkarketa) lexikoaren modulu edo estratu desberdinetan gerta daitezke. Mohanan-ek (1986: 28) ingeleserako lau estratuko morfologia proposatu zuen:

- stratum 1: class 1 derivation, irregular inflection
- stratum 2: class 2 derivation
- stratum 3: compounding
- stratum 4: regular inflection

Eta bere malaialameraren<sup>2</sup> arau fonologikoen azterketan ere lau estratuko morfologia bereizi zuen, hemen, ingelesaren kasuan ez bezala, hitz-elkarketan bi mota desberdinduz.

Hualdek, fonologia lexikoa euskarara aplikatuz, bere *Basque Phonology* lan ederrean (Hualde 1991) Mohanan-en lau estratuak bira ekarri zituen:

1. estratua (*Stratum I*): flexio-atzizkiak.
2. estratua (*Stratum II*): hitz-elkarketa.

Eratopen-atzizkiei dagokienez, kontuak ez dira hain argiak, eta euskalkien arabera haien jokaera desberdina da (Hualde 1991: 3):

Different derivational affixes may also be treated differently by the Phonology. In terms of Lexical Phonology, the attachment of derivational suffixes takes place in Stratum I in some dialects, where Stratum I will contain the bulk of suffixation. In other dialects, derivational suffixes are

<sup>2</sup> Malaialamera: Indiako Kerala estatuan hitz egiten den dravida taldeko hizkuntza.

attached at Stratum II. Derivational suffixation may also be divided between Stratum I, for some suffixes, and Stratum II, for others.

Bestalde, badira arau batzuk morfologiak mugatuak ez direnak: hauek arau postlexikoak dira, fonologiaren osagai postlexikoan aplikatzen direnak.

Aramaioko fonologia aztertzean hau guztia kontuan hartu dugu, eta hala araua zein inguruetan gertatzen den bereiztea oso egoki ikusi dugu: morfema barruan, flexio-morfologian, eratorpen-morfologian, aditzean, hitz-elkarketan, hitz-mugan... Zenbat eta ingurune gehiagotan bete araua, orduan eta emankorragoa. Halaber, mailegutan ere zer gertatzen den oso kontuan eduki dugu arauaren indarra eta emankortasuna nabarmentzeko.

Honelako azterketetan, eta fonologiarekin jarraituz, sarritan egiten den akatsa saihesten ere ahalegindu gara lan honetan, hots, zer den arau fonologikoa eta zer ez den ez bereiztea. Gamindek (2002: 4) argi azaldu du auzi hori:

Egiten diren deskripzio batzuetan, fonetika eta fonologiaren arteko mugarik ez dago; ez da argi geratzen zer den aldaketa bitxi bat eta zer den sistematikoa dena, araua dena hain zuzen. Are gehiago, sinkronia eta diakronia ez dira bereizten. Zaku berean agertzen dira fenomeno historikoak eta gaurkoak, honek laskintza dakarkigu argitasuna ekarri beharrean.

Hortaz, saiatu gara alde batetik *arau fonologikoak* ematen (batzuk beste batzuk baino emankorragoak, baina azkenean arautzat jo ditzakegunak), eta bestetik *bilakaera fonetikoak* (edo aldaerak) erakusten.

## ARAMAIOKO HIZKERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Ondoren, alorrez alor, Aramaioko euskarak erakusten dituen ezaugarriak zerrendatuko ditugu.

### 1. Fonologia

Ezaugarriak:

- (1) Beheko bokalaren asimilazioa: A > E / I, U \_\_\_\_
- (2) Erdiko bokalen igoera
- (3) /i, i̇\_\_ + V/ arteko [j] epentesia
- (4) a → e / —a
- (5) Txistukarien neutralizazioa
- (6) /n, l, r/ kontsonanteen ondoko txistukariak
- (7) Bustidura
- (8) 'V<sub>i</sub> + z/tz' > 'V + x/tx'
- (9) [x] ebakera
- (10) VdV > VrV
- (11) Herskariak: kontsonante aurreko herskari ahoskabeak galtzea
- (12) Herskariak: b herskariaren ahoskabetzea
- (13) Bilakaera fonetikoak
- (14) Azentua



**Azalpenak:****(1) Beheko bokalaren asimilazioa: A > E / I, U \_\_\_\_**

Arauaren arabera, beheko bokala (/a/) /e/-ra igotzen da goiko bokal baten ondoren, tartean kontsonanteren bat edo gehiago egon daitekeelarik edo ez.

Asimilazio-mota hau Aramaion oso emankorra da. Ingurune hauetan gertatzen da:

a) Morfema barruan:

1) *A*- berezkoa duten hitz batzuekin betetzen da erregela hau: sekula > *sekule*.

2) Bestelakoetan ere bai, hitzaren barruan edo bukaeran: ikasi > *ikesi*; itzal > *itzel*; izan > *isen*.

Maileguetan ere gertatzeak nabarmen erakusten digu arau hau indartsua eta emankorra dela: sikatu > *siketu*.

Hala ere, ingurune honetan badira salbuespenak: *abixau* 'abisatu', *bixau* 'biao', *militar*.

3) /ai, ei/ diptongoen ondoren: aita > *aitte*, behintzat > *bentzet*.

Badago salbuespenik: *aista* 'ahizpa', *laixa* 'laia'.

4) /au, eu/ diptongoen ondoren: euskaldun > *euskeldun*.

b) Flexio-morfologian:

Araua morfematik kanpo ere aplikatzen da. Flexio-morfologiaren eremuan, enborra *-u* edo *-i* bokalez amaitu eta kasu-marka *-a-z* hasten bada, araua nahiko sistematikoki betetzen da, batez ere kasu gramatikaletan eta maiztasun handiena dutenetan: ganadua > *ganadue*, eguna > *egune*, sasoia > *sasoie*, urdaia > *urdeixe*, buruak > *buruek*, *errixei* 'herriari'; barruan > *barruen*; lekura > *lekure*.

Salbuespenak

Deklinabide-atzizki zenbaitekin ez dago asimilaziorik: *katuas* 'katuarekin', *katuaitti* 'katuagatik', *puntan*, *errirano*, *itxuana* 'itxuarengana'.

c) Eratorpen-morfologian:

Aramaioko euskaran gutxi dira asimilazioa onartzen duten atzizkiak. Hauexek:

1) *-KA* atzizkia da sistematikoki asimilatzen den bakarra: *arrike* 'harrika'.

2) *-ADA*: *puntera* 'puntada'

3) *-KARA*: *illunkera* (baina *illunkara* ere entzun daiteke).

Atzizki gehienekin, esan bezala, ez dago asimilaziorik: *arrikara*, *amistade*, *laugarren*, *ikusgarri*, *baserritar*, *laguntasun*, *burutzar*.

d) Aditzean:

Aditzean ere asimilazioa gertatzen da: *aastute* 'ahaztuta', *eiñdde* 'eginda', *nutzule* 'nizula', *jakune* 'zaiguna', *eiñ ddozuleko* 'egin duzulako', *dauket* 'daukat', *iresu* 'egidazu'.

Baina adizkietan askoz ugariagoak dira araua betetzen ez dutenak. Alde batetik, eztabadako zenbait formatan: *litzake* 'litzateke', *balitzat* 'balitzait'. Eta, beste aldetik, forma alokutiboetan ikusten da argienik arau-urratzea: *neikian* 'nintekian/nezakean', *nutzan* 'nioan', *nakixan/nekixan* 'nekian', *jittunat* 'ditinat'.

e) Hitz-elkarketan:

Hitz elkartuetako osagaien arteko muga ez dugu asimilaziorik Aramaio-ko euskaran: *anai-arrebak*, *ogi-sati*, *buruaundi*, *Uribarri*.

## f) Hitz-mugan:

Aramaioko euskaran hitz-mugan oso urria da beheko bokalaren asimilazioa. ETA juntagailua da asimilatzen den bakarra. Asimilazioa gertatzeko hasierako bokala galdu egiten du, eta klitiko gisa jokatzen du: *afaldu te, emun de* ‘eman eta’, *ekarri tte* ‘ekarri eta’, *areikiñ dde* ‘haiekin eta’.

Asimilazioa inola ere ez da gertatzen hitzen arteko kanpo-sandhian: *beti lanien, diru asko*.

g) *i* eta *u* eratorriek eragiten duten asimilazioa:

Aramaion beheko bokalaren asimilazioa eragiten duen erregela hain indartsua da ezen /e/ eta /o/-tik datozen *i* eta *u* bokalek ere asimilazioa eragiten baitute ia sistematikoki: *etxie* ‘etxea’, *sutonduen* ‘sutondoan’.

Asimilazio-mota honen salbuespenak

Gorago aipatutakoez gain, izen propioetan ere gehienetan ez da betetzen araua: *Barrutia, Benitta, Eskoitzza* ‘Eskoriatza’.

## (2) Erdiko bokalen igoera

Bilakabide hau honetan datza: /e/, /o/ bokalak goiko (*i, u*) bilakatzen dira beste bokal batzuen (*a, e, o*) aurrean daudenean.

Hortaz: EA > IE (*bier* ‘behar’, *jentie* ‘jendea’); EE > IE (*gastiena* ‘gaztee-na’); EO > IO (*bior* ‘behor’, *bestiok* ‘besteok’); OA > UE (*eruen* ‘eroan’, *sutonduen* ‘sutondoan’); OO > UO (*astuok* ‘astook’); OE > UE (*soruena* ‘zoroena’).

Baina erregela ez da betetzen honako kasuetan: bokal bien artean beste kontsonanteren bat galdu bada (*geatu* ‘geratu’, *seeko* ‘zereko’, *eguneo* ‘eguneror’, *denpoa* ‘denbora’, *goorra* ‘gogorra’, *oera* ‘ohera’); mailegu gehienetan (*etarea* ‘hectárea’, *bonbardeo*, *toallie* ‘toalla’); hitz-elkarketan (*birealdi* ‘bidealdi’; *etxeoste*, *igoaldi*); hitz-mugan (*etxe aundixe* ‘etxe handia’, *beste olako*, *olako abariek* ‘holako abadeak’, *giro ona*; *asto ederra*).

## (3) /i, i̇ + V/ arteko [ʃ] epentesia

Aramaioko hizkeran *i* (eta *i̇* erdibokala) eta beste bokal baten artean [ʃ] (idatziz <x>) sabaiaurreko frikaria tartekatzen da. Epentesi hau Deba ibar osoan eta Markinaldean da ezaguna. Honela formula daiteke araua:

[ʃ]-en epentesia

[Ø] → [ʃ] / i, i̇ — V

Erregela oso emankorra da, baina ez salbuespenik gabekoa. Hauek dira bilakabideak:

-IA > IXE (ingurune batzuetan IXA: *bixamon* ‘biharamun’, *gasterixa* ‘gazteria’, *ferixa* ‘feria’), -IE > IXE eta -IO > IXO. Eta ingurune hauetan betetzen da nagusiki erregela: morfema barruan (*ixe* ‘ia’, *me(r)ixenda* ‘merienda’, *erresaixo* ‘rosario’); flexio-morfologian (*baserrixen* ‘baserrian’, *arrixekiñ* ‘harriekin’, *bixon* ‘bion’); aditzean (*daixen* ‘dezan’, *nakixen/nekixen* ‘nekien’, *akixo* ‘hakio’).

Salbuespenak: morfema barruan (*maietz* ‘maiatz’); zenbait mailegutan (*entierro*, *julio*); flexio-morfologian (*anaie*, *gustietan*); eratorpen-morfologian (*oñetiarra* ‘oñatiarra’, *jaiero*); aditzean (*litxakio* ‘litzaioke’); hitz-elkarketan (*urdeiaspiko*, *baserri-etxe*, *Urkiola*); hitz-mugan (*etorri artien* ‘etorri artean’, *dosenerdi etxe*, *itxi orduko*); kontsonante bat galdu ondoren (*die* ‘dira’, *sien* ‘ziren’, *biotz* ‘bihotz’).

(4)  $a \rightarrow e / \text{---}a$ 

Aramaioko hizkeran, mendebaleko beste hizkera batzuetan bezala, *-a* be-rezkoa duten hitzei *a* mugatzailea eranstea, disimilazio-asimilazioak gertatu dira, eta azken emaitza *ie* da. Bilakabidea hauxe izan da:  $aa > ea > ia > ie$ . Be-raz, araua flexio-morfologian betetzen da (*arrebie* ‘arriba’ (arriba + *a*), *arrebien* ‘arrebaren’, *arrobiendako* ‘arrebarendako’).

Arau hau guztiz emankorra da. Baina ingurune horietan, eta ez bi *a* el-kartzen diren guztietan. Esaterako, mugatzailearen gainean eratzen diren de-klina-bide-kasu zenbaitetan (*-a(ren)gana*, *-agaz*, *-agatik*) bilakaera ez da *ie*, *ia* baizik (*aistiana* ‘ahizparengana’, *eskuberias* ‘eskuberagaz’, *alabiatti* ‘alabaga-tik’).

Bestalde, leku-denborazko kasuetan ez da erregela gauzatzen: *plasan*, *plasa-sako*, *plasiatik*, *plasarara* (eta *plasarako*, *plasararaño*, *plasarutze*). Ezta partitiboan eta prolatiboan ere: *plasa(r)ik*, *plaszat*.

## (5) Txistukarien neutralizazioa

Mendebaleko euskara osoan bezala, Aramaion ere txistukarien erabateko neutralizazioa gertatu da:

a) Alde batetik, frikariaren artean, /s/ bizkar-albeolarearen eta /s'/ apiko-al-beolarearen artean, azkenaren aldeko neutralizazioa dugu (*esan* ‘esan’, *isen* ‘izan’).

b) Aldiz, afrikatuaren artean, /ts/ bizkar-albeolarearen (idatziz <tz>) eta /ts'/ api-ko-albeolarearen (idatziz <ts>) artean, lehenaren aldeko neutralizazioa gerta-tzen da (*atzo* ‘atzo’, *atzo* ‘atso’).

## (6) /n, l, r/ kontsonanteen ondoko txistukariak

Euskaran bilakaera orokorra da /n, l, r/ kontsonanteen ondorengo txistu-kari frikariak afrikatu bihurtzea. Aramaioko hizkeran /ts/ afrikatuaren alde-ko neutralizazioa gertatzen da. Neutralizazio hori morfema barruan gertatzen da, euskal hitzetan (*ontzi*; *baltz*; *sertzuk*) zein gaztelaniatiko maileguak euskarara egokitzean (*gantzontzillo* ‘calzoncillo’; *poltza* ‘bolsa’; *kartzela* ‘cárcel’).

Dena dela, hizkera honetan joera hau ez da erabatekoa, ezta hitzun zaha-rreren artean ere. Mailegu askotan ez da araua jarraitzen (*ensalada* ‘ensalada’; *eskursiño* ‘excursión’; *kalsio* ‘calcio’).

Beste ingurune batzuetan ere ez da afrikatuaren aldeko neutralizazioa gerta-tzen: hitz-elkarketan (*burdin sati*; *mutilsar*; *sarsaro* ‘zahartzaro’); hitz-mugan (*eon san* ‘egon zen’, *sein san* ‘zein zen’; *il sien* ‘hil ziren’; *or sabitz* ‘hor zabil-tza’).

## (7) Bustidura

Hizkera honetan bustidura nahiko indartsua dela esan dezakegu. Ara-maion asimilazio-bustidura da aurkitzen duguna. Funtsean, honetan datza: *i* bokal osoa eta /i/ erdibokalaren ondoren doan kontsonantea asimilatzea, busti-z. Hemen honako fonema kontsonantiko hauek bustitzen dira: /n/, /l/, /t/, /d/, /s/, /s/, /ts/ eta /ts/, batez ere lehen hirurak. Goazen banan-banan:

/n/ fonema

Fonema honen bustidura nahiko sistematikoa da. Ingurune hauetan gerta-tzen da: morfema barruan (*jakiñ*, *konfiñ* ‘confín’, *burdiña*, *dotriña*, *bañe* ‘baina’); flexio-morfologian (*alegiñe* ‘ahalegina’, *sorgiñen*, *San Martiñetan*); eratorpen-morfologian (*kosiñero*, *saspiñe*); hitz-elkarketan (*amañarriba* ‘ama-

ginarreba'); hitz-mugan (*eiñ auen* 'egin zuen', *bardiñ ddust* 'berdin dit', *iñ ttut* 'egin ditut', *useiñ txarra* 'usain txarra').

Salbuespenak: kontsonante aurrean (*hainbeste*, *ein gutzen* 'egin genion'); bokal artean, euskal hitz batzuetan (*efini/ifnili/ini*, *Madina* (deitura)) zein maileguetan (*klinika*, *seminarixo*); hitz-mugan (*beti neuk*, *etorri nitzen*).

#### /l/ fonema

/l/ fonemaren bustidura automatikoa ia erabatekoa da. Hauek dira bustiduraren inguruneak: morfema barruan (*ikubill* 'ukabil', *automobill*, *neskattilla*, *fillermonika* 'filarmónica', *fralle* 'fraile'); flexio-morfologian (*mutillek* 'mutilak/mutilek', *illien* 'hilean', *Madrillen*); eratorpen-morfologian (*abillau* 'abilago', *ibillera*); hitz-mugan (*sail aundixe* 'sail handia', *trill eiñ* 'topo egin').

Salbuespenak: kontsonante aurrean (*mutilsar*; *il bier* 'hil behar'; *mutil guapue*; *il jakun* 'hil zitzaigun'); bokal artean, euskal hitz batzuetan (*ixilik*, *txilibito*) zein maileguetan (*Basilio*, *militar*, *ilusño*); hitz-mugan (*beti lagundu*, *esi leike* 'ezin daiteke/liteke').

#### /t/ fonema

Kontsonante honekin ere bustidura automatikoa ia erabatekoa da. Salbuespenak oso gutxi dira. Bustidura gertatzen da: morfema barruan (*bakitt* 'badakit', *politt*, *aitte* 'aita', *itturri*, *jesuitta*, *bixitta*); flexio-morfologian (*aspaldittik*, *politikiaittik* 'politikagatik'); eratorpen-morfologian (*baserrittar*, *politto*, *argittasun*); aditz-morfologian (*baltzittu* 'belztu', *ixegitte* 'esekita', *etxeitten* 'itxoiten'; *afaitteko* 'afaltzeko', *sittuen* 'zituen', *daittesen* 'daitezen'); klitikoekin (*etorri tte* 'etorri eta'); **t/in**, **il\_\_V** ingurunean ere bai (*erremiñtta* 'erreminta', *subeliñttera* 'sugandila', *ibilltten* 'ibiltzen').

Salbuespenak oso gutxi dira: izen bereziak (*Benito*, *Kontxita*); maileguak (*ejersito*, *kapital*, *politika*, *txikito*).

#### /d/ fonema

Fonema hau bustitzeko ezinbestekoa da *i* bokalaren eta /d/-ren artean *n* edo *l* kontsonantea izatea. Ingurune hauetan gertatzen da: morfema barruan (*iñdder* 'indar', *txiñddurri* 'txindurri'); flexio-morfologian (*urriñddi* 'urrundik'); aditzean (*ixillddu*, *astiñddu*, *illdde* 'hilda', *eiñdde* 'eginda', *niñddoian* 'nindoan', *niñdduan* 'nindian'); klitikoekin (*gisonakiñ dde* 'gizonekin eta', *ill dde* 'hil eta'); hitz-mugan (*ill ddon* 'hil dun').

Salbuespen gehienak hitz-mugan ditugu: *bakasiñuekin da* 'bakazioekin eta', *oin danak antzea* 'orain denak antzera'. Mailegu batzuetan ere ez dago bustidurarik: *lindeta(n) juan* 'lindatzen zian', *sindikato*.

#### /s/ fonema (idatzita <s>)

Bustidura hau erabatekoa ez bada ere, baditugu adibideak euskal hitzetan zein maileguetan. Bustidura bokal artean gertatzen da soilik: *ixilik*, *igixi* 'ihesi', *abixau*, *maixu*.

Badira, hala ere, aurreko *i* baten eraginik gabe sortutako bustidurak, zenbaitetan azalpen garbirik ez dutenak. Alde batetik, izen bereziak ditugu, babilio adierazkorra izan dezaketenak: *Joxe*, *Baxilio*. Bestetik, zenbait hitz berezi: *oxiñ* 'osin', *xei* 'sei'.

Salbuespenak batez ere maileguetan aurkituko ditugu: *disimulau*, *Felisa*, *konpromiso*.

Kontsonante aurrean inoiz ere ez da /s/ palatalizatzen: *disgusto, karlista, maistra, obispo, triste*.

/s/ fonema (idatzita <z>)

Bustidura gerta daiteke *i* erdibokalaren ondoren (bustidura gertatu ondoren sarri erdibokala desagertzen delarik), eta oso urria da *i* bokalaren ondoren: *gox* ‘goiz’, *ixotz* ‘izotz’, *txixera* ‘zizare’.

Gainerakoetan, jatorrizko /s/ /s'/ dugu (idatziz <s>) Aramaioko hizkeran: *bisi, gison, isen* ‘izan / izen’.

Apiko-albeolarearen kasuan bezala, hemen ere baditugu zenbait adibide asimilazio-bustiduraren bidez nekez azal daitezkeenak. Adibide gehienak izen bereziei dagozkie: *Txoxa, Luxiano*. Bestelakoetan *pilloxik* ‘biluzik’ dugu, eta hor bustiduraren arrazoia erabilera adierazgarria izan daiteke.

/ts/ eta /tʃ/ fonemak (idatzita <tz> eta <ts>)

Kontsonante hauetan ere zenbaitetan asimilazio-bustidura gauzatzen da, nahiz eta gehiago diren ingurunez landako bustidura erakusten dutenak.

Asimilazio-bustidura: *itxuli* ‘itzuli’, *itxeso* ‘itsaso’, *jatxi* ‘jaitsi’.

Ingurunez landako bustidura: izen berezietan (*Patxi, Txatxurrena, Txomiñ, Txoxa*), eta izen arrunt batzuetan ere bai (*antxiñe* ‘antzina’, *billotx* ‘bildots’, *poltxiko* ‘poltsiko, sakela’).

Bestalde, Aramaioko hizkeran, Nor-Nori-Nork adizkietako hikako moldean txistukari afrikatu sabaiaurrekoa ager dakiguke bizkar-albeolare ohiko-agoaren parean (*jutxan* ‘zioan’, *jutxenat* ‘zionat’).

(8)  $V_1 + z/tz > V + x/tx$

Bilakaera hau (hots, aldaera bustia erdibokala galduz) ia erabatekoa da Aramaion: *atx* ‘haitz’, *axe* ‘haize’, *atxur* ‘aitzur’, *bakotx* ‘bakoitz’, *gatx* ‘gaitz’, *gox* ‘goiz’.

Batzuetan, beste hau da bilakaera:  $V + s: as$  ‘haiz’,  $nas$  ‘naiz’,  $nos$  ‘noiz’.

(9) [x] ebakera

\*j-ren bilakaera diferentea izan da euskalkiak banatzen dituen ahoskera-desberdintasun garrantzitsuenetakoaren arrazoi, gero idazkeran aniztasun hori islatzen ez bada ere.

Aramaioko hizkeran, Oleta alde batera utzita, ebakera [x] da, hots, frikari belare ahoskabea. Leintzen berdin. Ingurune hauetan agertzen zaigu: hitz hasieran (euskal hitzetan: *jabe, jaixo, jakiñ, jantzi, jareñ* ‘jaregin’, *jaun, jaurti, jausi, jo, jorratu, josi, juen* ‘joan’; maileguetan: *jaboi, jeneral, jente, jerse, Jakiñ, jubilau, junta*; adizkietan (*esin jeikian* ‘ezin zitekean’, *jaku* ‘zaigu’, *jittuk* ‘ditik’, *jostenan* ‘zidanen’, *jak* ‘zagok’, *jatok* ‘zatorrek’); bokal artean (*Bajon* ‘Barajuen auzoa’, *gisajo* ‘gizagaixo’, *ejenplo, erlijiño, erloju, garaje*); kontsonante ondoren (*amabirjiña, estranjero, injiñero* ‘ingeniari’, *sarjento*).

(10)  $VdV > VrV$

Txandaketa emankorra da /d/ eta /r/ dardarkariaren artean gertatzen dena. Aramaioko euskaran /d/ > /r/ gertatzen da, baina ez alderantziz. Bilakabide hori erabatekoa ez bada ere, nahiko ugaria da. Ingurune hauetan gertatzen da: morfema barruan (euskal hitzetan: *eran* ‘edan’, *urebarri* ‘udaberri’, *iri* ‘idi’; maileguetan: *abare* ‘abade’, *erare* ‘edade’, *meriku* ‘mediku’, *meseres* ‘mesedez’); eratorpen-morfologian (*piñuroi/piñuri* ‘pinudi’, *leprarun* ‘lepradun’, *ostikara* ‘ostikada’, *libertare* ‘libertade’); aditzean (entendidu > *entendiru*; egi-

dazu 'iezadazu' > *iresu*; *barie* 'badira'; *bisi ra* 'bizi da', *sertute rao* 'zertuta dago'; *ure rabixola* 'ura dariola').

Inoiz, hala ere, *d*-dun formak ere entzuten dira: *itxi dot*, *bisi da*. Bestalde, hitz-mugan ez dugu txandaketarik: *beste danak*, *geure denporakue*.

#### (11) Herskariak: kontsonante aurreko herskari ahoskabeak galtzea

Kanpo-sandhian, alegia, bi hitzetako amaierako eta hasierako kontsonanteak elkartzean, bilakaera ugari gertatzen dira. Bereziki aipatzekoak dira herskariekin gertatzen diren fenomenoak. Maiz kontsonante aurreko herskari ahoskabeak ezabatu, galdu egiten dira. Zenbat eta hizkera arinago edo arduragabeago, orduan eta galera gehiago gertatuko da. Hizkera arduragabean, beraz, herskari ahoskabeak ingurune hauetan galtzen dira:

a) Herskari ahoskabearen aurrean:

Araua hauxe dugu:  $t, k \rightarrow \emptyset / \text{---} [+ \text{herskari ahoskabe}]$

(edo:  $t, k \rightarrow \emptyset / \text{---} \{p, t, k\}$ )

-t + p- > p: *etxoa(t) pentzetan* 'ez diat pentsatzen'.

-t + t- > t: *esto(t) topetan* 'ez dut topatzen'.

-t + k- > k: *sema(t) kilometro*.

-k + p- > p: *ni(k) pentzetan nen* 'nik pentsatzen nuen'.

-k + t- > t: *arei(k) tiruek* 'tiro haiek'.

-k + k- > k: *ganaue(k) kendu*.

b) Herskari ahostunaren aurrean:

Araua hauxe dugu:  $t, k \rightarrow \emptyset / \text{---} [+ \text{herskari ahostun}]$

(edo:  $t, k \rightarrow \emptyset / \text{---} \{b, d, g\}$ )

-t + b- > p: Hemen lehenbizi herskari ahostuna ahoskabe bihurtzen da (**b** > **p**), eta ondoren dator aurreko herskaria galtzea. Hitz hauek dira aurreko herskaria galarazten dutenak: *ba (estai(t) pa* 'ez dakit ba'), *bañe* 'baina' (*pentzau do(t) pañe* 'pentsatu dut baina'), *be* 'ere' (*ba(t) p'es* 'bat ere ez'), *bai (baja(t) pai* 'bazait bai'), *be(i)ntzet* 'behintzat' (*ba(t) pentzet* 'bat behintzat') eta kasuren batean *bider (maiña ba(t) pider* 'makina bat bider').

-t + d- > d: hemen, aldiz, ahostuna ez da ahoskabetzen. Hizkera arinean herskari ahoskabea galtzen da. *Semat* 'zenbat' eta *bat* dira kontsonantea galtzen dutenak (*sema(t) denpora*, *gausa ba(t) dok*).

-t + g- > g: hemen ere ahostuna ez da ahoskabetzen, eta herskari ahoskabea galtzen da (*etxa(t) gustetan* 'ez zait gustatzen', *estai(t) geixau* 'ez dakit gehiago').

-k + b- > p: Hemen lehenbizi herskari ahostuna ahoskabe bihurtzen da (**b** > **p**), eta ondoren dator aurreko herskaria galtzea. Hitz hauek dira aurreko herskaria galarazten dutenak: *be(z)* 'ere (ez)' da adibide gehien sorrarazten dituena (*eguni(k) p'es* 'egunik ere ez'), baina baita beste hauek ere: *ba (do(k) pa* 'duk ba'), *bai (neu(k) pai)*, *bañe* 'baina' (*orrei(k) pañe* 'horiek baina'), *baño* 'baino' (*onena(k) paño*), *be(i)ntzet* 'behintzat' (*batzu(k) pentzet*), *beste(ko)* (*orre(k) peste*, *gu(k) pesteko*).

Goiko hitz horiekin araua ia erabatekoa da, baina gainerakoekin beste hau dugu bilakaera: -k + b- > b: *aetxe(k) bixek* 'bi haiexek', *basoik(k) baso*, *basterri(k) baster*.

-k + d- > t: ezezaguna ez bada ere, hau ez da bilakaera ohikoena: *dana(k) tie* 'denak dira', *illi(k) tok* 'hilik duk'. Beste arau hau da arruntena: -k + d- > d: *batzu(k) das* 'batzuk daude', *orre(k) dauko*, *utzi(k) dau* 'hutsik dago'.

-k + g- > g: herskari ahostuna ez da ahoskabetzen: *errenterue(k) gitzen* 'errenteroak ginen', *onei(k) gastiok* 'gazte hauek'.

c) Frikarien aurrean:

Hizkera arinean herskaria galtzea da arruntena:

-t + f- > f: *sema(t) famelixa*.

-t + s- > s: *esto(t) siñesketan* ‘ez dut sinesten’.

-t + j- > j: *ainba(t) jasak* ‘hainbat zeudek’.

-k + f- > f: *gisona(k) falta*.

-k + s- > s: *alperri(k) sabitz* ‘alferrik zabilta’.

-k + j- > j: *tripa(k) jaten*.

d) -N, -L kontsonanteen aurrean:

Hizkera oso arduragabeen herskaria gal daiteke:

-t + n- > n: *bauke(t) nik* ‘badaukat nik’.

-t + l- > l: *dosena ba(t) lagun*.

-k + n- > n: *ni(k) nauken* ‘nik neukan’.

-k + l- > l: *erregie(k) letxe* ‘erregeak legetxe’.

## (12) Herskariak: *b* herskariaren ahoskabetzea

*b* kontsonante herskari ahostuna ahoskabetu egiten da, aurreko herskaria galtzea eraginez. Beste hizkera batzuetan gainerako herskari ahostunak (*d*, *g*) ere ahoskabetzeko joera badago ere, Aramaion soilik *b*-rekin gertatzen da hori, eta ez hitz guztiekin.

Hauxe da araua: **b** → **p** / **t**, **k** — (*akordetan baja(t) pai* ‘akordatzen bazait bai’).

## (13) Bilakaera fonetikoak

### A) Bokalen eta diptongoen bilakaera fonetikoak

Arau fonologikoez gain, badira bokalen artean gertatzen diren bestelako bilakaera batzuk, ez sistematikoak, baina aipatu beharrekoak, askotan hizkeren arteko desberdintasunak azaleratzen dituztelako. Bilakaera horiei *aldaera lexikoak* edo *aldaerak* deituko diegu.

Hemen aipatuko ditugunek hitz-multzo bati eragiten diote, eta esan dezakegu holako arau moduko bat edo joera bat dagoela bokal bat edo bestea agertzeko.

1. *e* → *a* / —*r̄*: *bardiñ*, *barri*, *txarri*, *asarre* (baina *aterpe*, *baserri*, *bider*, *eguerdi*, *eskerrik asko*, *igerri*, *iserdi*, *ister*, *musker*, *piper*, *pitxer*).

Bestalde, Aramaion *baltz* (*baltzittu*) eta *asur* (*asurbaltz*, *biskerrasur*) dira aldaerak, mendebal guztian bezala.

2. *u*-*l*-*i*. Aramaion *u*- aldaera dugu hainbat hitzetan: *ugaxo* ‘igel’, *ule*, *untza* ‘iltze’, *urten*, *urun* ‘hirin’, *usen* ‘izain’. Baina beste aldaera batzuetan *i*-daukagu: *igeri*, *intxaur*, *isen* ‘izen’, *itxi* ‘utzi’.

3. *-e* > *-a*

Hitz batzuetan *-e* > *-a* egiten da Aramaion, mendebaleko hizkera askotan bezala: *altara* ‘aldare’, *bela* ‘bele’, *betula* ‘betile’, *golda* ‘golde’, *oba* ‘hobe’, *untza* ‘iltze’, *laba* ‘labe’, *landara* ‘landare’, *lora* ‘lore’, *ota* ‘ote’, *suba* ‘suge’, *tittera* ‘titare’, *txixera* ‘zizare’.

4. *-u*-*l*-*i*

Hitz barruan ere *-u*- dugu batzuetan: *gutxi*, *puxika* ‘maskuri’, *iñuntz* ‘ihintz’.

Baina *-i*- beste batzuetan: *birau*, *txixillu* ‘zizeilu’ (< lat. *subsellium*).

5. *eli* bokalen txandaketa

Zenbait hitzetan *e* > *i*/    *i*, *u* legea betetzen da: *ebili* > *ibili*, *ibilli* (*ebili* ere bai), *egitai* > *igetei*, *iretei*, *ietei*, *iriti*, *iriti*.

Bestalde, Aramaion, mendebal eta erdialde gehiengan bezala, *bel-dur/bildur* bikotean *i*-duna da erabiltzen dena: *billur*.

## 6. Metatesia

Ondoko hauetan, eta itxura guztien arabera, metatesia gertatu da: *arrasuiñ* ‘aharrausi’, *arkondara* ‘alkandora’, *beinke* (< gazt. ‘bien que’), *euberdi* ‘eguerdi’, *ordeilordai* ‘herdoil’, *upin* ‘ipuin’, *eromai* ‘oramahai’, *tittera* ‘titare’, *iñure* ‘unide’.

## 7. Bokalen arteko asimilazioak

Hurbileko asimilazioa deitua eta hiatuan dauden bokalen arteko asimilazio-disimilazio bilakabideez gain, baditugu bestelako asimilazioen zenbait adibide.

Honako hauek orokorrak dira: *aramaitteko* ‘abemarietako’, *erestun* ‘eraztun’, *errebatiba* ‘errogatiba’, *arañun* (< *eranegun*) ‘herenegun’, *ingeretu* (< *ingeretu*) ‘inguratu’, *prosoiño* ‘prozesio’.

Beste hauek ere jaso ditut, baina ez dira orokorrak: *untzun* ‘entzun’, *ukubill* (< *ikubil* ‘ukabil’), *oponio* ‘opinio’.

## 8. Beheranzko diptongoak: [ai̯], [au̯], [ei̯], [eu̯], [oi̯]

Diptongo hauetarik batzuk beste batzuk baino maiztasun handiagokoak dira. Bestalde, hizkera arduragabeen diptongoen maiztasuna handiagotu egiten da, bokal arteko zenbait kontsonante ahostun galtzen direlako.

**[ai̯] diptongoa**

Diptongo hau ugaria da: *aitte* ‘aita’, *amaike* ‘hamaika’.

*Ai* > *ei*

Ez da maiztasun handiko bilakabidea: *euskalgeisto* ‘euskalgaitzo’, *geixo* ‘gaixo’, *neikue* ‘nahikoa’, *neixoan* (< *naixoan* ‘nian’).

*Ai* > *a* murrizketa

Erdibokalaren ondoko kontsonantearen palatalizazioak diptongoaren murrizketa ekarri ohi du sarri: *bañe* ‘baina’, *gatx* ‘gaitz’, *atx* ‘haitz’, *lañue* ‘lainoa’.

*Ai* > *e*: *eskeñi* ‘eskaini’, *gesto* ‘gaitzo’.

*Ai* > *i*: kasuren batean *ai* > *i* murrizketa dugu: *iriti* (baina *igetei* ere bai) ‘igitai’, *larrin* ‘larrain’, *eskiñi* (eta *eskeñi*) ‘eskaini’.

**[ei̯] diptongoa**

Hemen ere, jatorrizko diptongoen ondoan (*deittu*, *ei*, *ereiñ*, *eroseiñ* ‘edozein’, *ogei*, *seiñ* ‘zein’, *xei* ‘sei’), bigarrenkari ugari ditugu (*bein* ‘behin’, *geixau* ‘gehiago’, *keispe* ‘gerizpe’, *larrei* ‘larregi’, *esateittu* ‘esaten ditu’, *besteik*).

*Ei* > *i* monoptongazioa

Monoptongazioa gertatzen da maiztasun handiko *eiñ* (< *egin*) aditzean: *iñ*, *iñdde*, *itten*, *itteko* (baina forma diptongodunarekin txandakatur: *eiñ*, *eiñdde*, *eitten*, *eitteko*). Gauza bera gertatzen da *ei* partikularekin: *aundixe i san* ‘handia ei zen’.

*Ei* > *e* monoptongazioa

Hizkera honetan *ogei* hitzeko diptongoa monoptongatu egiten da (*e*)ta aurrean: *ogetamar*. *E(g)in* > *en* bilakatzen da *bi(er)* (< *behar*) hitzaren aurrean: *ekarri en bier alabioi* ‘ekarri egin behar alabaori’.



**[aɥ] diptongoa**

Diptongo hau, *ai* diptongoa bezala, oso ugaria da: *aittejaun*, *arrautza*, *jaun*, *lau*.

Kontsonante bat galtzearen ondorioz ere asko ditugu: *kontau*, *pentzau*, *esautu* ‘ezagutu’, *beranduau* ‘beranduago’, *nau* ‘nago’.

*Au* > *a* monoptongazioa

Aramaioko hizkeran zenbait hitzetan gertatzen da fenomeno hau: *arpegi* ‘aurpegi’, *karandu* (<*garaundu* ‘garautu’), *larogei* ‘laurogei’.

*Aundi*-ren kasuan, aldiz, badirudi alderantziz gertatu dela, testu zaharretan (*h*)*andi* baita agertzen den bakarra. Aramaion beti da *aundi*.

*-Au* > *u*

Zenbaitetan monoptongazioa *u* bokalaren alde lerratzen da: *baru* ‘barau’, *itturlari* ‘itaurleri’. \**Erautsi* (‘ari izan, jardun’) aditzaren adizki ia galduetan ere monoptongazioa dugu: *darutzet*, *darutzo*, *darutzesu*.

**[eɥ] diptongoa**

Diptongo hau ez da aurrekoak bezain ugaria: *euli*, *euri*, *euskera*; *eurak*, *geu*, *neu*, *seu*; *euén* ‘zuen/zegoen’, *geuken* ‘geneukan’, *neuken*... Diptongo bigarrenkari gisa ere bai: *euki* ‘eduki’, *euski* ‘eguzki’, *eun* ‘ehun’...

*Eu* > *u* monoptongazioa

Murrizketa hau erabatekoa da \**etsi* aditzaren adizkietan: *ein gutzen* (<*egin geuntsan* ‘genion’). Lexikoan: *untziñ* ‘etsi’.

*Eu* > *au*

Zenbait adizkitan jatorrizko *eu* diptongodun formekin batera, *au*-dunak ere ager dakizkiguke: *euén/auén* ‘zuen / zegoen’, *euken/auken* ‘zeukan’, *seu-kelsauke* ‘zenuke’.

**[oi̯] diptongoa**

Ez ditugu adibide asko: *arratoi*, *batalloi*, *goi*, *sasoi*, *sermoi*, *gastañoi* ‘gaztainadi’, *leixardoi* ‘lizardi’, *sagardoi* ‘sagardi’, *daroie* ‘daroa’, *doie* ‘doa’...

Sari agertzen zaigu bigarrenkari moduan, kontsonante bat galtzearen ondorioz: *asuntoik*, *gisonoi*, *iñoi*, *euko’ittuk* ‘edukiko dituk’.

*oi* > *o* monoptongazioa: *balkoti* ‘balkoitik’, *bakotx* ‘bakoitz’, *soñeko* ‘soineko’, *nos* ‘noiz’.

9. Goranzko diptongoak: [ja], [je], [jo], [wa], [we], [wi]

Autore askoren arabera (Mitxelena 1985 [1961], esaterako), goranzko diptongoak ez dira jatorrizkoak euskaran. Erdarazko maileguz bidez sartu zaizkigu.

Ekialdeko euskalkietan ugari dira goranzko diptongoak. Mendebalean ere aurki daitezke. Eta orain erdararen eragina nabariagoa denez, areagotu egin dira.

Aramaioko euskaran ez dira asko:

WA: *agwantau*, *guardixie*, *igwal*, *kwadrilla*, *kwartel*.

WE: *bisebwelo*, *bwelta*, *bweno*, *fwera*, *fwerte*, *igwel*, *jwerga*, *kweba*, *pwesto*.

JA: *Juljan*, *milisjano*, *ofisjal*, *persjana*.

JE: *baljentie*, *disjenbre*, *entjerro*, *infjenu*, *parjentie*, *setjenbre*, *tenjente*.

JO: *inpwesto rebolusjonarjo*, *nasjonalista*.

Askoz gutxiago, baina inoiz euskal hitzetan ere bai: *egwenien*, *egwerdixen*, *erwen*, *jwen/fwen*.

Gainerakoan ez dugu diptongorik, hiatoa baizik: *fi.esta, nerbi.oso, si.esta, su.ertau*.

Inoiz, hiatoa apurtzeko, kontsonante bat tartekatzen da: *rueda > errubera*.

Beste kasu batzuetan maileguetako goranzko diptongoaren murrizketa gertatzen da: *gobernu, pañelo/pañelu, armosu* (< ‘almuerzo’).

Azkenik, hitz-mugan ia gehienetan hiatoa dugu: *sure isena, neska ixille, ori umioi*.

10. Hitz-amaierako *-ain* eta *-uin* diptongoen bilakaera

Diptongo horiek monoptongatzeko joera dago Aramaioko hizkeran.

*-ain > -an*: *erran* ‘errain’, *espan* ‘ezpain’, *laban* ‘labain’, *san* ‘zain’.

Aldiz, *-gan/-gain* aldaeren artean diptongoduna da erabiltzen dena: *gaiñ, gain bat*.

*-uin > -un*: *mun* (*emon/emun*) ‘muin (eman)’, *lurrun* \*lurruin, lurrin’.

11. Kontrakzioak edo laburpenak

Hizkera azkar eta arduragabeen kontrakzio ugari egiten dira, sarritan silaba bat edo gehiago desagertzen delarik. Kontrakzio gehienak aditzaren inguruan gertatzen dira: *il bi auenien* ‘hil behar zuenean’, *en b’isete(n) san* ‘egin behar izaten zen’, *ill iñ i auen* ‘hil egin ei zuen’, *ote(n) sien* ‘egoten ziren’, *etxeat/etxiat/letxat < etxakixat* ‘ez zakiat’, *ga* ‘gara’, *bosu < badozu* ‘baduzu’, *eon b’iste(n) nen* ‘egon behar izaten nuen’, *berrotamar* ‘berrogeita hamar’, *Etxan* ‘Etxaguen’.

## B) Kontsonanteen bilakaera fonetikoak

Bokalismoan egin dugun legez, hemen kontsonantei eragiten dieten bilakaera ez-sistematikoak aipatuko ditugu, hau da, hitz batzuetan soilik gertatzen direnak.

1. Hasierako herskariak

Hizkera honetan herskari ahoskabeen aldeko neutralizazioa dago hitz hasieran: *pago, parkatu, pekatu, pilloxik* ‘biluzik’; *kaldara, katu, keispe* ‘gerizpe’, *kollara/kollera, korapill; tittera* ‘titare’...

Baina inoiz ahostuna da hobesten dena: *bake, danboliñttero, danborrara, denpora, galtzairu*.

Bestalde, zenbait kasutan hasieran  $\emptyset$ - dugu: *afixa* ‘habia’, *odoldui/oroldi* ‘goroldio’, *upel*. Eta kasuren batean alderantzizkoa ere bai: *koskol* (& *moskol*) ‘oskol’.

2. Herskari ahostunen bilakaerak

Kontu jakina da /b, d, g/ fonemak bokal artean daudenean frikari bihurtzeko joera dutela eta hizketa arinean desagertzera ere irits daitezkeela. Eta hori euskalki denetan gertatzen da, gutxi-asko. Aramaioko hizkeran hauek dira indar handiena duten bilakabideak:

2.1.  $d > \emptyset$  /V\_\_\_V

/d/ galtzeko joera badago, baina ez da erabatekoa. Galera batez ere ingurune hauetan gertatzen da: morfema barruan, euskal hitzetan zein maileguetan (*euki* ‘eduki’, *pasaiso* ‘pasadizo’, *sur* ‘sudur’); aditzean (*bakitzu* ‘badakizu’, *bator* ‘badator’, *desaparesiu* ‘desaparezidu’, *esango’ittesu* ‘esango dituzu’).

Baina askotan ez dago galerarik: *adar, bedar, edan, Udelatx, adelanto, boda, duda, labadora, moderno, presidente, bada, badauket, badator, badabilk; bie dan moruen* ‘behar den moduan’, *ekarriko daue* ‘ekarriko dute’...

2.2.  $g > \emptyset/V\_V$ 

Kasu honetan ere batzuetan kontsonantea galtzen da. Ingurune hauetan batez ere: morfema barruan (*daoldau* ‘dago’, *eiñ, iñ* ‘egin’, *esautu* ‘ezagutu’, *uesaba* ‘ugazaba’); flexio-morfologian (*andrias* ‘andreagaz’, *euskeriaittik* ‘euskaragatik’).

Bestelako inguruneetan ez da kontsonante hori galtzen: eratorpen-morfologian (*barregarri, laugarren*); hitz-elkarketan (*andra-gisonak*); hitz-mugan (*euki gaixoan* ‘eduki genian’).

3.  $N$  eta  $L$  ondoko herskari ahoskabeak

Zenbait hitzetan (batez ere mailegu berrietan) herskari ahoskabeak ditugu. Batzuk batez ere mendebalean erabiltzen direnak: *altara, denpora, jentete*. Gainerakoak arruntagoak dira (maileguak, gehienak): *elegante, salto, konpondu, alperrik, apaintetan* ‘apaintzen’, *alkate*.

4.  $-d/-l$ -txandaketa

Mendebalean nagusi diren aldaerak agertzen dira hemen ere, alegia,  $d$ -duinak: *bedar, edur, ider* ‘ilar’, *sider* ‘zilar’. Eta *ilargi* orokorra adierazteko *ietargi*.

5.  $l/n$ -txandaketa

Zenbait hitzetan  $l$ -orokorrari  $n$ -dagokio hizkera honetan: *narru, nasai, nar* ‘lahar’.

## 6. “Ez” partikulak eragiten dituen bilakabideak

“Ez” partikula adizkiekin elkartzen denean aldaketa fonetikoak gertatzen dira, hizkera batzuetan besteetan baino erabatekoagoak. Hauexek dira hizkera honetakoak:

 $d > t/ez\_$ 

Bilakaera hau erabatekoa da: *estabill* ‘ez dabil’, *estakitt, estaitt* ‘ez dakit’.

 $b > p/ez\_$ 

Kasu honetan “ez” partikula baldintzazko adizkiekin elkartzen denean, herskari ahostuna ahoskabetu egiten da beti: *espara* ‘ez bada’, *esposu* ‘ez badozu’.

 $g > k/ez\_$ 

Hizkera honetan ahoskabetzeko joera badago ere, ez da erabatekoa. Oro har, hortaz, ahoskabe: *eskatos* ‘ez gatoz’, *eska, eskara* ‘ez gara’.

Baina sarritan ahostunak ere entzun daitezke: *esgen* ‘ez genuen’, *esgeuken* ‘ez geneukan’.

Bestalde, ‘-z gero’ Aramaion *eske(r)o/aske(r)o* ebakitzen da: *arrapau eskeo, urten askero*.

 $z > \emptyset/\_n$ 

Lege hau ez da erabat betetzen. Badirudi aukerako bilakaera dela, nahiz eta joera nagusia  $/s/$  galtzea den. Beraz: *enau* ‘ez nago’, *eniñddoien* ‘ez nindoan’.

Baina beste batzuetan  $/s/$  galdu gabe: *esnau* ‘ez nago’, *esnekixen* ‘ez nekien’.

 $z > \emptyset/\_l$ 

Batzuetan legea betetzen da,  $/s/$  galduz: *eleuke/elauke* ‘ez luke’.

Baina ez beti: *eslitzake* ‘ez litzateke’.

 $z > tz/ez\_$ 

Bilakaera hau nahiko sistematikoa da: *etzien* ‘ez ziren’, *etzittuen* ‘ez zitu-  
tuen’, *etzatos* ‘ez zatoz’.

Baina frikariak ere entzun daitezke inoiz: *esa* ‘ez zara’, *esatos* ‘ez zatoz’.

Bestalde, batzuetan analogiaz-edo *etz-* dugu espero ez den adizkiekin: *etzauen* ‘ez zuen’.

 $h > \emptyset/ez\_$ 

Kasu honetan, hasperena egiten den hizkeretan ez bezala, txistukaria ez da galtzen: *esas* ‘ez haz’.

**ez + j- > etx**

Hizkera honetan **j-** ([x]) kontsonantearekin hasten diren adizkiak ugari direnez (Nor-Nori sailekoak eta hitanokoak), elkarketa horretan bilakaera hauxe gauzatzen da sistematikoki: *etxatzu* ‘ez jatzu (zaizu)’, *etxuau* ‘ez juau (diagu)’, *etxutzat* ‘ez jutsat (zioat)’, *etxauan* ‘ez jauan (zegoan)’.

7. Bukaerako **-n**a) **\*-ani > ain**

Aramaion, mendebalean bezala, **-n**-dun aldaerak ditugu: *amorrañ* ‘amuarrañ’, *saiñ* ‘zain’, *useñ* ‘usain’.

b) **-n**-dun hitz zenbait: alde batetik modu adberbioak ditugu: *alan*, *alaxen*, *bestelan* (& *bestela*), *olan* (& *ola*), *olaxen*, *selan* (*sela*-rekin lehian). Bestetik, bestelako hitzak: *euntziñ* ‘eutsi’, *mamiñ*, *miñ* ‘mihi’, *txikiñ*, *sentzun*.

c) **-n- galtzea**

Beste leku askotan bezala, ingurune batzuetan **-n** kontsonantea galtzeko joera dago hizkera honetan: aditz nagusian (*aste sien* ‘hasten ziren’; *eote nitzen* ‘egoten nintzen’; *gusteta jakon* ‘gustetan jakon (gustatzen zitzaion)’; *esate’ittu* ‘esaten ditu’; *saltze gen* ‘saltzen genuen’; *urtete tzen* ‘irteten zion’; *jate auen* ‘jaten auen (zuen)’; *esa nutzien* ‘esan nutsien (nien)’; *jue leike* ‘joan liteke’); hitzetan (*sela* ‘zelan’: *sela esango joa(t) pa* ‘zela esango diat, ba’; *esi* ‘ezin’: *esi leikie berbaik iñ* ‘ezin dezakete berbarik egin’).

## 8. F kontsonantea

fkontsonante ezpain-horzkaria bizirik dago Aramaion, batez ere maileguetan: *famelixalfamilixa*, *fede*, *fixau* ‘fidatu’, *formal*, *fruta*, *funtziño*; *afaldu*, *afusillau*, *desafixo*, *ittufiñ* ‘itogin’, *jefe*, *manifestasiño*, *ofisio*, *profesional*, *telefono*.

Aramaion *p/b* orokorra *f*egiteko joera dago, adibide hauek erakusten ditugenez: *afixa* ‘habia’, *frakak*, *fratel* ‘plater’, *fristixa* ‘piztia’ (< bestia).

Hizkera honetan *f > p* bilakaerak ez du indarrik. Hemen ez ditugu beste hizkera batzuetan ohikoak diren *pamilia*, *peria*, *konpianza* eta horrelakoak. Hitzun guztien artean (gazte zein zahar) *f* da nagusi.

Badira, ordea, /p/ ebakera erakusten duten zenbait hitz: *alper*, *napar*, *pago*, *paxa* ‘faja’, *piku*, *posporo* ‘fósforo’, *prijiru* ‘frijitu’.

Amaitzeko, kasuren batean *f* txandaketa dugu. Esaterako, Aramaion *ifini/ifiñi* (eta *efinilefiñi*) bada ere sarrien entzungo duguna, inoiz *ipini/ipiñi* ere entzun daiteke.

## 9. Metatesia

Kontsonanteen artean, bokalekin gertatzen den bezala, inoiz metatesiak izaten dira. Aramaion badugu adibideren bat: *arkal* ‘alkar (elkar)’, *alemanixa* ‘animalia’, *Gergorio* ‘Gregorio’.

(14) **Azentua**

Beste hizkera askotan ez bezala, Aramaiokoan azentua oso erregularra da, arau garbiak dituena. Ezaugarri hauek erakusten ditu Aramaioko azentuerak:

1. Azentua ez da bereizgarria, hau da, ez du balio esanahia bereizteko: ez dago esangura desberdineko hitz bikoteak bereizten dituen azenturik (*artie* ‘zuhaitza’ / *artie* ‘trebetasuna’; *basúe* ‘oihana’ / *basúe* ‘edalontzia’; *botie* ‘zahatoa’ / *botie* ‘oinetakoá’; *otie* ‘zuhaixa’ / *otie* ‘oilategikoa’; *serúe* ‘zerua’ / *serúe* ‘0 zenbakia’...); deklinabidean azentuek ez du singularra eta plurala bereizten (*semiek* (sing.) / *semiek* (pl.)), ez eta pluralak eta mugagabeak (*alábai* (pl.) / *alábai* (mugag.)); ize-nak eta nominalizazioak ere ez ditu bereizten azentuek (*astie* (iz.) / *astie* (nom.));

baldintzek eta baiezkoez azentu bera dute (*barákar / barákar*); aginterak eta osagarriak berdin (*datórrela / datórrela*).

2. Azentua ezkerretik hasita bigarren silaban ([+2]) doa (bisilabadunetan izan ezik; orduan lehen silaban [+1]).

3. Aramaion ez dago doinu-azenturik.

## 2. Izenaren morfologia

Ezaugarriak:

- (1) Hitz arrunten deklinabidea: azpiko formen taula
- (2) Ergatiboa: forma berbera (-*ak*) singularrean zein pluralean
- (3) Datiboa: forma berbera (-*ai*) singularrean zein pluralean
- (4) Genitiboa: forma berbera (-*en*) singularrean zein pluralean
- (5) Soziatiboa: sing. -*as* / pl. -*akiñ*
- (6) Motibatiboa eta ablatiboa: -*k* gabeko aldaerak
- (7) Destinativoa: -*endako*
- (8) Hurbiltze-adlatiboa: -*rutze*
- (9) Pertsona-izenordain indartuak: *neu, eu, geu...*
- (10) Erakusleak: erro bera singularrean zein pluralean
- (11) Erakusleak izenaren ezkerretara eta eskuinetara

**Azalpenak:**

(1) **Hitz arrunten deklinabidea: azpiko formen taula**

Hona hemen guztietarako balio dezakeen azpiko formen taula:

|                | SINGULARRA | PLURALA     | MUGAGABEA              |
|----------------|------------|-------------|------------------------|
| ABSOLUTIBOA    | -A         | -AK         | -Ø                     |
| PARTITIBOA     | -----      | -----       | -(r)IK                 |
| ERGATIBOA      | -AK        | -AK         | -(e)K                  |
| DATIBOA        | -AI        | -AI         | -(r)I                  |
| GENITIBOA      | -EN        | -EN         | -(e)N                  |
| SOZIATIBOA     | -AS        | -AKIÑ       | -(e)AS                 |
| DESTINATIBOA   | -ENDAKO    | -ENDAKO     | -(e)NDAKO              |
| MOTIBATIBOA    | -AITTI(K)  | -AKAITTI(K) | -(e)AITTI(K)           |
| INSTRUMENTALA  | -AS        | -----       | -(e)S                  |
| PROLATIBOA     | -----      | -----       | -TZAT                  |
| INESIBOA       | -(e)AN     | -ETAN       | -(e)TAN/- (e)N         |
| LEKU-GENITIBOA | -(e)KO     | -ETAKO      | -(e)TAKO/- (e)KO       |
| ABLATIBOA      | -(e)TI(K)  | -ETATI(K)   | -(e)TATI/- (e)TI(K)    |
| ADLATIBOA      | -(e)RA     | -ETARA      | -(e)TARA/- (e)RA       |
| HURBILTZE-ADL. | -(e)RUTZE  | -ETARUTZE   | -(e)TARUTZE/- (e)RUTZE |
| MUGA-ADL.      | -(e)RAÑO   | -ETARAÑO    | -(e)TARAÑO/- (e)RAÑO   |

(2) **Ergatiboa: forma berbera (-*ak*) singularrean zein pluralean**

-A-z amaitutako hitzetan izan ezik (sing. *alabiek*; pl. *alabak*), gainerako bokalekin forma berbera daukagu singularrean eta pluralean (*semiek*; *ardixek*; *astuek*; *katuek*). Kontuan hartu behar da azaleko forma desberdina dela fonologia atalean aipatutako zenbait erregela ezartzen direlako.

Kontsonantez amaitutako hitzetan ere forma berbera dugu singularrean zein pluralean (*gisonak*).

**(3) Datiboa: forma berbera (-ai) singularrean zein pluralean**

Kasu honetan ere -A-z amaitutako hitzetan izan ezik (sing. *alabiei*; pl. *alabai*), forma berbera dugu singularrean zein pluralean (*semiei*; *ardixei*; *astuei*; *katuei*; *gisonai*).

**(4) Genitiboa: forma berbera (-en) singularrean zein pluralean**

Hemen ere -A-z amaituriko hitzetan izan ezik (sing. *alabien*; pl. *alaben*), beste guztietan forma bera dugu singularrerako zein pluralerako (*semien*; *ardixen*; *astuen*; *katuen*; *gisonen*).

Singularreko hondarkia gehienetan -en den arren, inoiz -an ere entzuten da (*aberatzan*, *biorran*, *gisonan*).

**(5) Sozietiboa: sing. -as / pl. -akiñ**

Kasu honetan, alde batetik singularrean -as (<-agaz) daukagu (*alabias*; *semias*; *ardixas*; *astuas*; *katuas*), eta pluralean -akiñ (*alabakiñ*; *semiekiñ*; *ardixekiñ*; *astuekiñ*; *katuekiñ*; *gisonakiñ*).

Esango nuke, gainera, gipuzkeraren eta Euskara Batuaren eraginez, -KIN bidezko formak singularrean eta mugagabeen ere nagusitzen ari direla, batez ere gazteen artean. Hona adinekoei jasotako zenbait adibide: *arekiñ*, *gure ranaikiñ* ‘gura denarekin’, *jente gustiekiñ* ‘jende guztiarekin’, *masuekin jote(n) soan* ‘mazoarekin jotzen zuan’, *medikuekiñ*...

**(6) Motibatiboa eta ablatiboa: -k gabeko aldaerak**

Motibatiboan eta ablatiboan bukaerako -k gabeko aldaerak erabiltzeko joera dago, baina ez hiztun guztien artean.

Motibatiboan erabiltzen den atzizkia -gaiti/-gaitik da. Beraz, *alabaiatti* formaren parean *alabaiattik* ere entzun daiteke. Bestalde, -gati/-gatik ere entzun daiteke: *alabiati(k)*.

Ablatiboan berdin: *plasati*, *plasetati* formak Aramaion arruntak dira, baina *plasiatik*, *plasetatik* aldaerak ere entzun daitezke.

**(7) Destinatiboa: -endako**

Xedezko destinatiboa denean, hizkera honetan -endako da atzizki nagusia, inoiz -entzako ere entzun badaiteke ere. Pertsona-izenordainetan ere *ni(r)etako*, *gu(r)etako* motakoak dira nagusi, nahiz eta *niretzako*, *guretzako* erakoak ere arruntak izan.

Ergatiboan, datiboan eta genitiboan bezala, kasu honetan ere -A-z amaituriko hitzetan izan ezik (sing. *alabiendako*; pl. *alabandako*), beste guztietan forma berbera dugu singularrean zein pluralean (*semiendako*; *ardixendako*; *astuendako*; *katuendako*; *gisonendako*).

**(8) Hurbiltze-adlatiboa: -rutze**

Hurbiltze-adlatiboari dagokion hondarkia ezaguna bada ere, erabilera ez da hain zabala eta erabatekoa. Hizkera honetan -RUTZE da aldaera, baina ez da kasu guztietan erabiltzen. Ikus dezagun noiz erabiltzen den:

- Erakusleen adizlagunekin: *arutze*, *onutze*, *orrutze*.
- Beste adizlagun batzuekin: *aurrerutze*, *barrurutze*, *berutze*, *gorutze*...
- Hitz arrunt eta bereziekin ere bai: *Bilborutze*, *eskumarutze*, *kalerutze*...
- Mugatu singularrean (-e)RUTZE) pluralean eta mugagabeen baino maizago agertzen zaigu, baina singularrean ere ez da ohikoena.

Izan ere, hitz arrunt eta bereziekin erabiliagoa da *aldera* (Aramaion ia *beti aldeá*) postposizioa: *Araba aldeá*, *atzekaldeá*, *barrukaldeá*, *Donostialdeá*...

Eta mugatu pluralean eta mugagabeen ia aukera bakarra adlatiboa erabiltzea da, hurbiltze-adlatiboaren markarik gabe.

**(9) Pertsona-izenordain indartuak: *neu, eu, geu...***

Hauexek dira indartuen formak:

|               |              |             |             |               |
|---------------|--------------|-------------|-------------|---------------|
| neu           | eu           | geu         | seu         | seueik        |
| neuk          | euk          | geuk        | seuk        | seueik        |
| neuri         | euri         | geuri       | seuri       | seuei         |
| neure         | eure         | geure       | seure       | seuen         |
| neuas         | euas         | geuas       | seuas       | seueikiñ      |
| neuaitti(k)   | euaitti(k)   | geuaitti(k) | seuaitti(k) | seuekaitti(k) |
| neu(r)etako   | eu(r)etako   | geu(r)etako | seu(r)etako | seuendako     |
| neuana        | euana        | geuana      | seuana      | seueikana     |
| neure(g)andik | eure(g)andik | geu(g)andik | seu(g)andik | seuengandik   |

Aramaion joera handia dago izenordain indartuak erabiltzeko. Hots, beste hizkera batzuetan oinarrizko izenordaina erabiliko litzatekeen kasu askotan hemen indartua erabiltzea da arruntena. Esaterako: hemen ohikoagoa da *neuas etorri da basoa* 'neurekin etorri da basora' esatea *nias etorri da basoa* baino. Edo *etorri neuana* 'etorri neuregana'. Eta abar.

Destinatiboan beste hauek ere badira: *neuretzako, euretzako, geuretzako, seuretzako, seuentzako*.

**(10) Erakusleak: erro bera singularrean zein pluralean**

Mendebal guztian bezala, Aramaion ere erro berbereko erakusleak erabiltzen dira singularrean eta pluralean. Kasu batzuetan, pluralean *-i-* bat hartzen dute: sing. *onek* / pl. *oneik*. Baina beste batzuetan singularraren eta pluralaren arteko sinkretismoa gertatzen da.

**(11) Erakusleak izenaren ezkerretara eta eskuinetara**

'Erakuslea + izena + erakuslea' egitura bizirik dago Aramaion: *onek mutillonek, orrek gisonorrek, oni gisononi*.

Leku-kasuetan ere molde hori erabiltzen da. *Etxe onetan, kale orretati* edo horrelakoen ordez, *emen etxien, orti kaleti* erakoak dira jendeak darabiltzanak.

Sarritan, dena dela, erakuslea ez da alde bietan erabiltzen: *selan dauken orrek liñuek lan asko* 'zelan daukan horrek lihoak lan asko'; *da arrapau jok amandriorrek* 'eta harrapatu dik amandrearrek'.

**3. Aditzaren morfologia**

Ezaugarriak:

- (1) Aditz-partizipioa: gazt. *-ado* > *-au*
- (2) Aditz-partizipioa: gazt. *-ido* > *-iru*
- (3) Aditz-izena: *-etan, -ketan*
- (4) *Izan* aditza: *-a-* erroa hirugarren pertsonan
- (5) \**Edun* aditza: *-o-* erroa orainaldian
- (6) \**Edun* aditza: *-au-* erroa lehen eta hirugarren pertsonetan
- (7) *Egin* aditza ahaleran, subjuntiboan eta aginteran
- (8) *Eutsi* aditza Nor-Nori-Nork saileko indikatiboan eta baldintzan
- (9) Iraganaldiko hirugarren pertsonaren ezaugarria  $\emptyset$ -
- (10) Nor-Nori saileko aditzetan *izan* laguntzailearen lehen kontsonantea *j-*
- (11) Nor-Nori saileko iraganaldia: oraina + *-n*
- (12) Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetako hitanoko adizkietan *j-*

**Azalpenak:****(1) Aditz-partizipioa: gazt. -ado > -au**

Gaztelaniako lehen aditz-jokotik ('-ar, -ado') mailegatutako aditzek partizipioan -au gorde dute (-ado > adu > au): *akordau, demostrau, enterrau, fumau, gustau, juntau, kantau, librau, pre(g)untau, saludau, tratau*. Euskal aditzen batek ere -au hartzen du: *barristau* 'berriztatu'.

**(2) Aditz-partizipioa: gazt. -ido > -iru**

Gaztelaniazko '-ido' partizipiotik mailegatutako aditzek -iru egiten dute Aramaioko euskaran (-ido > idu > iru): *atrebiru, desiriru, entendirru, kubriru, leirru, sokorrirru*... Inoiz -iu ere bai: *desaparesiu, eskribiu, mantenuu*.

**(3) Aditz-izena: -etan, -ketan**

-etan atzizkia hartzen dute -au amaiera duten aditzek. Partizipio hauek gehienak maileguak dira, eta bi edo bitik gorako silabadunak: *afusillau > afusilletan; barristau > barristetan; errespetau > errespetetan; gustau > gustetan; pasau > pasetan, paestan*.

-ketan atzizkia hartzen dute: 1. -atu amaiera duten aditzek (denak dira hiru silabatik gorakoak eta ia denak euskal jatorrizkoak edo mailegu zaharrak): *amorratu > amorraketan; eskatu > eskaketan; lotzatu > lotzaketan*; 2. -tu/du diren partizipioak. Gutxi batzuk bi silabadunak dira (*deittu > deiketetan; landu > lanketan; ostu > osketan*), eta gehienak hiru edo hiru silabatik gorakoak (*aastu > aasketan; eskondu > eskonketan; jarraitu > jarraiketan; txikittu > txikiketetan*).

**(4) Izan aditza: -a- erroa hirugarren pertsonan**

Aramaion *da, san* 'zen' dira adizkiak, eta horiek atzizkiren bat hartzean ez dute erroa aldatzen: *dan, dala, dalako, san, sala, salako*. *Da* adizkitik sortzen den zenbatzaile orokorrak ere erro bera gordetzen du: *dana, danai* 'denari', *daneti(k)* 'denetik', *danien* 'denean'.

**(5) \*Edun aditza: -o- erroa orainaldian**

\**Edun* aditzak -o- erroa hartzen du orainaldian: *dot, dok, don, dou* (eta *dau*) 'dugu', *dosu, dosue*. Baita ere *nosu* (& *nausu, naisu*) eta *nosue* (& *naisue*).

**(6) \*Edun aditza: -au- erroa lehen eta hirugarren pertsonetan**

\**Edun* aditzak -au- erroa hartzen du lehen eta hirugarren pertsonetan. Aramaion erro hori gordetzen da orainaldian eta baldintza-ondorioetan: *dau* 'du', *balau* 'balu', *laukie* 'lukete'. Baldintza-ondorioetan gainerako pertsonetan ere bai: *bagau* 'bagenu', *sauke* 'zenuke', *basaue* 'bazenute'.

Iraganaldian, dena dela, -au- erroa agertzen bada ere, arruntagoak dira -eu- eta -e-. Esaterako, Aramaioko bereizgarria da *ni, gu* eta *zu* pertsonetan -e- erroa nagusitzea: *nen* 'nuen', *gen* 'genuen', *sen* 'zenuen'. Forma horiekin batera, -eu- eta -au- erroak ere entzuten dira: *neuen/nauen* 'nuen', *geuen/gauen* 'genuen'.

**(7) Egin aditza ahaleran, subjuntiboan eta aginteran**

Aramaion ez da \**ezan* aditzaren formarik erabiltzen, *egin* da erabiltzen dena NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailtako ahaleran, subjuntiboan zein aginteran: *ik esiñ eike orreik arrixok altzau* 'hik ezin ditzakek harri horiekin altxatu'; *gure naukek sor dustiena pagau daittetela* 'gura nitek zor didatena ordaindu diezadatela'; *eseiresu asarreik eiñ* 'ez iezadazu haserririk egin'.



**(8) Eutsi aditza Nor-Nori-Nork saileko indikatiboan eta baldintzan**

Nor-Nori-Nork saileko indikatiboan eta baldintzan *-eutsi-* erroa erabiltzen da Aramaion: *orretxek sue emuten dust* ‘horrexek sua ematen dit’; *ik preuntau*ko *baust ulixe gause* ‘hik galdetuko bahit urlia gauza’.

**(9) Iraganaldiko hirugarren pertsonaren ezaugarria  $\emptyset$ -**

Aramaion  $\emptyset$ - da ezaugarria eta ez *z-*. Hona zenbait adizki: *auen* ‘zegoen’, *atorren* ‘zetorren’, *abilen* ‘zebilen’, *auen* ‘zuen’, *akixen* ‘zekien’, *akarren* ‘zeka-  
rren’, *utzen* ‘zion’.

Salbuespen bakarrak *\*edun-*en pluraleko formak dira: *sittuen* ‘zituen/zituzten’.

**(10) Nor-Nori saileko aditzetan *izan* laguntzailearen lehen kontsonantea *j-***

Nor-Nori saileko aditzetan *izan* laguntzailearen lehen kontsonantea *j-* da (ahoskera belarea duela): *jat* ‘zait’, *jaku* ‘zaigu’, *jatan* ‘zitzaian’, *jakuen* ‘zitzaien’.

Adizkiaren aurretik *ez* partikula jarritz gero, ebakera hau sortzen da: ‘*ez + j-*’ > *etx-*: *etxat*, *etxako*, *etxaku*.

**(11) Nor-Nori saileko iraganaldia: oraina + *-n***

Nor-Nori saileko iraganeko adizkiak orainaldikoei *-n* gehituta osatzen dira. Hortaz: *jat* > *jaten* ‘zitzaidan’, *jaku* > *jakun* ‘zitzaigun’, *jatzue* > *jatzuen* ‘zitzaizuen’.

**(12) Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetako hitanoko adizkietan *j-***

Aramaioke hizkeran hitanoko adizkien hasieran *j-* entzuten da asko (ahoskera belarea duela). Kasu hauetan:

Nor-Nork: indikatiboko Nor hirugarren pertsonetan (*jok* ‘dik’, *jittuat* ‘di-tiat’).

Nor-Nori-Nork: indikatiboko Nor hirugarren pertsonetan (*jutzenat* ‘zionat’, *jutzau* ‘zioagu’).

Aditz trinkoak: aditz irangaitz eta aditz iragankorretako indikatiboko Nor hirugarren pertsonetan (*jak* ‘zagok’, *jatorrenan* ‘zetorrenan’, *jabitzek* ‘zabiltzak’).

Hemen ere, Nor-Nori saileko adizkiekin gertatzen den bezala, ‘*ez + j-*’ > *etx-*: *etxok* ‘ez dik’, *etxutzau* ‘ez zioagu’, *etxak* ‘ez zagok’.

**4. Morfosintaxia**

Ezaugarriak:

- (1) Perpau osagarrietako *-eNA* menderagailua
- (2) Perpau osagarrietako *-eNIK* menderagailua
- (3) Helburuzko eta kausazko perpauetako *-T(Z)EARREN* menderagailua
- (4) Kausazko perpauetako ‘aditza + *eta*’ egitura
- (5) Aditz-izena inesiboan mugimenduzko aditzekin

**Azalpenak:****(1) Perpau osagarrietako *-ena* menderagailua**

Aramaion, *-eNA* menderagailua honelako aditzek eskatzen dute: *ikus*, *oserbau*, *igerri*, *jakiñ*, *demostrau*, *jakiñekue isen*, *goguen euki*, *uste isen* (*gera aurreti siena bakitt* ‘gera aurretik zirena badakit’; *ni oserbaute nak iños berban batzuk diferente esate’ittuena* ‘ni ohartuta nagok inoiz berbaren batzuk dife-

rente esaten dituztena'; *nik igerri nutzan a(k) totokixak esan sittuena* 'nik igarri nioan hark tontakeriak esan zituena').

*Oixe* 'horixe'-rekin *-eLA* menderagailua erabil daiteke, baina ohikoagoa da *-eNA* erabiltzea (*oixe erosi raune* 'horixe erosi duguna').

#### (2) Perpauos osagarrietako *-eNIK* menderagailua

Atzizki hau hartzeko perpauos nagusiak ezezkoa izan behar du: *ba, guk eskutzen artu be eiñ ori ola isengo sanik* 'bada, guk ez genion hartu ere egin hori hola izango zenik'.

#### (3) Helburuzko eta kausazko perpauosetako *-T(Z)EARREN* menderagailua

Aramaiion *-t(z)eagatik* baino askoz gehiago erabiltzen da *-t(z)earren* helburuzko eta kausazko perpauosetan: *ba, orduen askotan xei litro esne saltzearren, iguel saldie armosten* 'bada, orduan askotan sei litro esne saltzearren, igual salda almortzatzen'; *berba txarto eittearren kastigau au maixuek* 'berba txarto egitearren kastigatu hau maisuak'.

#### (4) Kausazko perpauosetako 'aditza + eta' egitura

Egitura hau oso ugaria da Aramaioko hizkeran: *aik, e, makiñistak isengo sien, arpegi baltza aukien bentzet eta* 'haiek, e, makinistak izango ziren, aurpegi beltza zeukaten behintzat eta'; *enas fuen be eiñ, pena emuten dust niri tte* 'ez naiz joan ere egin, pena ematen dit niri eta'.

#### (5) Aditz-izena inesiboan mugimenduzko aditzekin

Zenbait aditzek (*fuen/juen* 'joan', *eru(e)n* 'eroan', *etorri, ekiñ*) aditz-izena inesibo mugagabeen eskatzen dute: *eskoietz etxoitten orri* 'ez goaz itxoiten horri'; *beras gure niñdduen erutie bere errire maas batzen* 'beragaz eroan gura ninduen bere herrira mahats batzen'; *ori etorri san erakusten eskatza* 'hori etorri zen erakusten ezkaratza'; *beixe(k) batzen ekitteko* 'behiak batzen ekiteko'.

## ONDORIOAK

### 1. Aramaioko hizkeraren kokagunea

Inork ez du dudan jartzen Aramaioko hizkera, ezer izatekotan, bizkaiera edo mendebaleko euskara dela. Hori nabarmena da. Baina onena datuekin frogatzea izango da. Ondoren, beraz, Aramaioko euskara mendebaleko euskararekin lotzen duten ezaugarri nagusiak zerrendatuko ditugu, gero Arabarekin lotzen dutenak, eta azkenik mendebaletik banatzen duten apurrak.

#### 1.1. Aramaioko euskara mendebalarekin lotzen duten ezaugarriak

Mendebaleko euskarak nortasun handia du. Koldo Zuazok (1998b: 204; 2003: 67-78) euskalki horren hainbat bereizgarri aipatzen dizkigu, euskalki guztietatik kopuru hazieta. Aramaioko hizkera ezaugarri guztietan ez bada ere, ia gehienetan bat dator mendebaleko euskararekin.

Hona, arloka, Aramaioko hizkera mendebalarekin lotzen duten ezaugarri nagusiak:

##### 1.1.1. Fonologia

- 1) *-a+ a > ie* bilakaera: *aistie*.
- 2) Txistukarien neutralizazioa (<z> → <s> eta <ts> → <tz>).

3) 'V<sub>i</sub> + z/tz' > 'V + x, s/tx' bustidura bilakaera: *atx, axe*.

4) Aldaerak

4.1. *-e* > *-a*: *altara, andra, bela*.

4.2. *-e* > *a* / \_\_\_ *r̄*: *barri, txarri*.

4.3. *u-* / *i-*: *ugaxo, ule, untza, baina igeri*.

4.4. *-ain* > *-an*: *erran, espan, laban, baina gaiñ*.

4.5. *-\*ani* > *-ain*: *amorrain, sain, usein*.

4.6. *-d-*: *bedar, edur, sider*.

4.7. *n-*: *narru, nasai*.

4.8. *-n*: *mamiñ, miñ* 'mihi', *zentzun*.

4.9. *-gi*: *ebailebei, erabagi, jagi*.

4.10. Bestelakoak: *aista, ardau, asur, bako* 'gabeko', *baltz, barre, be* 'ere', *eskuttur/eskittur, eskuma, ete, gastai, iñuntz* 'ihintz', *itxi* 'utzi', *kamiño, keixa* 'gerezi', *kiñerra* 'txilar', *kipula, kuma, lebatz, malluki, otzittu, solo, txix*.

### 1.1.2. Izenaren morfologia

1) Soziatiboko morfemak

Ezaugarri honetan singularrean eta mugagabeen mendebalean bezala (*-as* (<*-agaz*)), baina pluralean ez (*-kiñ*): *alabias/alabakiñ*.

2) Hurbiltze adlatiboko morfema

Mendebalean erabiltzen diren *-(e)rantz* / *-(e)rutz* morfemen artean, bigarrena da Aramaion erabiltzen dena (*-(e)rutz*e aldaeran): *onutze, etxerutze, Bilborutze*.

3) Erakusleak sustrai berbera singularrean eta pluralean

Aramaion singularra eta plurala bokalismoaren bidez bereizten dira: *onek/oneik, orri/orrei*.

4) *Neu* tankerako izenordain indartuak

Aramaion izenordain indartuak sarri erabiltzen dira, eta formaz *neu* tankerakoak dira.

5) *-rik* atzizkia

Honelako esapideetan erabiltzen da: *basoi(k) baso, soloik solo*.

6) *-(z)iño* atzizkia (<erdal *-(c)ión*)

Ad.: *abiasino, bereinkasino, baina komunio/komonio*.

### 1.1.3. Aditzaren morfologia

1) *Egin* erroa

Aramaion *egin* aditzaren adizkiak erabiltzen dira Nor-Nork eta N-N-N sailletako ahaleran, subjuntiboan eta aginteran: *esi(n) neikek nik bie dan moruen esplikau; xei mille erriel ari emu(n) nutzen etxea ekarteko galdu estaigun; gur'osuena eisue*.

2) *Eutsi* erroa N-N-N sailean: *estutzut esango*.

3) Nor-Nori *izan* laguntzailearen lehen kontsonantea *j-*: *jako* 'zaio'.

4) Nor-Nori saileko iragana egiteko 'oraina + *-n*': *jakon* 'zitzaion'.

5) *\*edun*-en hitanoko adizkien hasierako kontsonantea *j-*: *jok* 'dik'.

6) *-o*- eta *-au-* *\*edun*-en erroan: *dot, dou* (& *dau*), *nosu* (& *nausu*).

Iraganaldian *-eu-* (Aramaion *-au-* eta *-e-* ere bai): *neuen/nauen/nen*.

7) Iraganaldiko 3. pertsonaren ezaugarria Ø: *auen* 'zegoen', *oien* 'zihoan'.

8) 3. pertsonetako NOR argumentuari dagokion pluralgile nagusia *-z-*: *das* 'daude', *dabitz/dabis* 'dabiltza'.

Salbuespen dira \**edun*-en adizkiak: *dittut, sittuen*.

9) Partizipioetan gazt. *-ado* > *-adu* > *-au*: *akordau*.

10) Partizipioetan gazt. *-ido* > *-i(d)uliru*: *entendiru*.

11) Aditz-izenak

Aditz-izenak egiteko aukera asko dago mendebaleko euskalkian. Aramaion ere, oro har, atzizki berak erabiltzen dira: *-ten* (*etorri* → *etorten, ill* → *illtten, jo* → *joten, bota* → *botaten*), *-etan* (*erre* → *erretan, gustau* → *gustetan*) eta *-tuten* (*defendiru* → *defendiruten*). Horiez gain, eremu murriztagoko (Debagoineko) *-ketan* ere oso ugaria da (*eskatu* → *eskaketan, deittu* → *deiketan*).

12) *Ari izan*-en ordeez *egon, ibili*.

Aramaion batez ere *egon* eta *ibilibilli*. *Jardun* ere ezaguna da, baina ez aditz horren adizkiak. Ad.: *lanien nabill; esturixetan dau*.

13) *Urten* eta *igo* iragankorrak: *urten gen, igo dosu*.

#### 1.1.4. Morfosintaxia

1) Mugimenduzko aditzen osagarria aditz-izena denean, inesiboan: *sure aitte oien paguek ikusten*.

2) Galdegaia aditza denean, 'partizipioa + aditz trinko jokatu' egitura: *etorri ator ala juen oie?*

3) Perpaus osagarrietako *-ena*: *gerra aurreti siena bakitt*.

4) Kausazko eta helburuzko perpausetako *-t(z)earren* morfema (Aramaion *-etaarren* eta *-ketaarren* aldaerak ere bai): *berba txarto eittearren kastigau au maixuek*.

5) Perpaus kontzesiboetako *arren*: *emenguek isen es arren, euskeldun sentituten dittuk*.

6) *ala* eta *edo* hautakariak bereizten dira

Aukera adierazteko, *ala*-ren erabilera bizirik dago zehar-galderetan zein galdera zuzenean: *estakitt gusurre ala egixe esang'usten; saldute dauketzue ala gordeta dauketzue?*

Bigarren aukera isiltzen denean ere bai: *soratu in jatzu, ala?*

7) *Bi* zenbatzailea izenaren eskuinetara: *gison bi; alde bixetati*.

Batzuetan, dena dela, izenaren ezkerrean ere ager daiteke: *bi alaba ta bi seme*.

8) Erakusleak izenaren ezkerretara: *au umiau; emen etxien*.

#### 1.1.5. Lexikoa

Lexikoan ere, oro har, mendebaleko kutsua du hizkera honek.

Mendebalekoak dira asteko egunen izenak: *martisen, eguasten, eguen, bari-riku, sapatu, domeka*. Hilabeteen izenetan erdarazkoak dira nagusi, baina lehenago gutxienez *semendi* ezaguna zen, eta *martzo*-rekin batera *marti* ere esaten da. Beste hitz askotan ere (euskal jatorria dutenetan eta zenbait mailegutan ere bai) mendebalarekin bat dator Aramaio<sup>3</sup>: *a* 'hura', *abare, abarketa, afrontu, apurtu, ardi* 'arkakuso', *armosu, arramusgara* 'purrustada', *artasi, atzamar, auma, baba* 'babarrun', *barik, batu* 'bildu', *begikuna, berakatz, berba* (& *berbaldun, berbatzu, berbeta*), *besteko* 'bezain', *besero, bier*<sup>4</sup> (& *biergiñ*), *bi-*

<sup>3</sup> Kontuan eduki behar da hauetako hitz batzuk hedadura handiena mendebaleko euskaran izan arren, mendealetik kanpo ere erabili ohi direla.

<sup>4</sup> Baina *lan* askoz gehiago.

*sixen* ‘minbizi’, *bisixo* ‘(hesteetako) zizare’, *ebatu* ‘heldu’, *ei*, *elespe*, *erdu* ‘zatoz’, *esakuna*, *esela* (& *eselako*), *estegui*<sup>5</sup>, *fraka*, *gangar*, *ganora*, *garbatu*, *garo* ‘ihintz’, *gatzatu*, *gomunta*<sup>6</sup>, *gure* ‘gura, nahi’, *ietargi*, *igerri*, *illunkara/illunkera*, *ira*, *isentau*, *isera*, *isuski*, *itzel*, *ixotu*, *jamon* ‘jaramon’, *jausi*, *kantzau*, *karandu*, *karu* (& *karutu*), *katamixar*, *keispe*, *korta*, *lapiko*, *larrei*, *laru*, *lau* ‘ordoki’, *letxe*, *miestu* ‘mehaztu, bakandu’, *mokill*, *neba*, *odoloste*, *ogerleko*<sup>7</sup>, *ogittegastai*, *okan* (*aran*<sup>8</sup>), *orri* ‘hosto’, *ortu*, *osatu* ‘sendatu’, *oste*, *otzara*, *paitta* ‘ahate’, *papar*, *papargorri*, *pernill*, *posture* ‘apustu’, *puxika* ‘bixika, maskuri’, *sarri* ‘maiz’, *satz*, *selalselan*, *selako*, *sikute*, *sill*, *tatarres*, *txarri-korta*, *txarto*, *uber* ‘herdoil’, *uesa-ba*, *ugaxo* ‘igel’, *ulu*, *umel* ‘heze’.

### 1.2. Aramaioko euskara Arabarekin lotzen duten ezaugarriak

Honek azterketa zehatzagoa eskatzen badu ere, Aramaion badira zenbait ezaugarri Arabako euskararekin lotzen dutenak. Esate baterako:

1) *-tza + a > -tzaie*

Aramaion hitz batzuetan *-tzaie* da bilakaera: *bedartzaie*, *bisitziaie*, *labrantzaie*, *eskontzaie*, *gesaltzaie*, *konfiantzaie*. Oletan bertan ez daukagu holakorik: *bedartzie*, *bisitzie*, *labrantzie*...

2) Aditz-inenetako *-ketan* morfema

Aditz-izenetan aukera handia dago Aramaion. Baina bada bat Aramaion eta Debagoieneko herrietan erabiltzen dena: *-ketan* morfema. Morfema hau hartzen dute hiru silaba edo hiru silabatik gorako *-atu* amaiera duten aditzek eta gainerako *-tu-z* (*-etu*, *-ittu* *-otu*, *-rtu*, *-stu*, *-ndu*...) amaitzen diren bi silabatik gorakoek: *eskatu* → *eskaketan*; *apurtu* → *apurketan*.

3) Aditzak objektu pluralarekin komuntadura

Aramaion adizki askotan ez dago objektu pluralarekiko komuntadurarik: *jakun* ‘zitzaizkigun’, *daki* ‘dakizki’. Oletan bertan, ostera, bai: *dxakusen*, *dakis*.

4) Lexikoa: *garranga* ‘izotz-kandela’, *susuma* ‘higuin’...

### 1.3. Aramaioko euskara mendebaletik banatzen duten ezaugarriak

Ez dira larregi Aramaioko euskara mendebaleko euskaratik banatzen duten ezaugarriak. Eta zerrendatuko ditugunetatik asko ez dira oso garrantzitsuak, ez behintzat berdintasunetan ikusi ditugunen bestekoak. Berrero ere Zuazo (1999c) izan dugu gidari nagusi. Batzuetan Aramaion betetzen ez diren Bizkai aldeko ezaugarriak dira, eta beste batzuetan alderantziz. Aldaera lexikoei eta lexikoari dagokienez, zail gertatzen da zehatza izatea, berben eta aldaeren isoglosak oso bereziak eta aldakorak baitira. Hauetan, gehienetan, Aramaio Deba ibarreko inguruko herriekin dator bat. Batez ere Aramaion bai eta Bizkai aldean agertzen ez diren batzuk seinalatuko ditugu.

Hona zenbait ezaugarri:

<sup>5</sup> Aramaion lehenago *estegu* (eta *estei* ere) ezaguna zen, baina gaur egun *boda*.

<sup>6</sup> Lehen asko esaten ei zen; orain *akordu* askoz gehiago.

<sup>7</sup> Antzinako berbatzat daukate.

<sup>8</sup> ‘Aran’ esateko *aranokan* ere entzun dut Aramaion.

1) *-au-* > *-eu-* bilakaera

Bizkaian hitz askotan *-au-* diptongoa *-eu-* egiteko dagoen joera (*eurrera*, *geur*, *geusa*) ez dago Aramaion.

## 2) &lt;z&gt; → &lt;x&gt; bustidura

Aramaion *i* bokalaren ondoko <z> kontsonantea gutxitan bustitzen da (argizagi > *argixei*; izotz > *ixotz*). Aldiz, bizkaieran askoz gehiago: *bixar*, *bixi*, *gixon*, *ixan*, *ixen*, *ixerdi*. Aramaion hauetan aldaera bustigabea dugu.

3) Mendebalean *-n* / Aramaion eta Deba ibarrean *-n* eta *-ø*

Aramaion *olan*, *selan*-en parean *ola* eta *sela* ere erabiltzen dira.

## 4) Sozietiboko morfemak

Ezaugarri honetan, gorago esan bezala, alde batetik berdintasuna dago eta bestetik desberdintasuna: singularrean mendebalean bezala, *-as* (< *-agaz*): *aittas*; baina pluralean mendebaleko *-akaz* morfemaren ordeztu, *-kiñ* da hemen erabiltzen dena, gipuzkeran eta beste euskalki askotan bezala: *gisonakiñ*.

## 5) 'edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordain zehaztugabeen saila

Mendebalean ohikoak dira horrelakoak: *edonor*, *edonok*, *edonori*, *edonos*, *edonun*...; berdin *edoser* eta eratorriak.

Aramaion ez dago horrelakorik. Aramaion gehien erabiltzen dena *edozein* da: *eroseiñ*, *eroseñek*, *eroseñi*... Mendebaleko *edonon*, *edonora*, *edonondik* adierazteko: *erosein lekuten*, *erosein lekuteallekutaa*, *erosein lekutati*. Testu libreetan behin bakarrik jaso dugu *eroser*, baina ez bakarrik: *eroser gause*. Eta azken hau baino askoz sarriago esaten da *erosein gause*.

## 6) 'Nor edo nor' egiturako izenordainen saila

Mendebalean sail osoa erabiltzen da: *nonor*, *nonok*, *nonori*... Aramaion ez dago horrelakorik. Aramaion horren ordeztu *baten bat* eta bere eratorriak erabiltzen dira.

## 7) 'nahi + izenordain galdetzailea' saila

Bizkaiko zenbait lekutan ohikoak dira *naiñor*, *naiñun*, *naiñora*... Aramaion ez dago holakorik.

8) \**edun*-en iraganaldian *-u-* > *ø*

Aramaion \**edun* aditzaren adizki batzuetan *-u-* erroa galtzen da: *nen* 'nuen', *gen* 'genuen', *sen* 'zenuen'. Dena dela, forma horien ondoan *-u-* dunak ere entzuten dira: *neuen/nauen*, *geuen/gauen*, *seuen/sauen*.

9) Aurkaritza adierazteko *baino*

Aurkaritza adierazteko, *besterik* da Aramaion erabiltzen dena: *aldemenea bota besteik enauken*.

Bizkaian arrunta den *baño* ez da erabiltzen hemen. Aldameneno Otxandion bai (Burgeyte & Gaminde 1991: 147): *ori esta emekue Gernikakue baño*.

## 10) Galdera- eta baldintza-perpauak nahastea

Bizkai aldean nahiko ohikoa den nahasketa hau (*estakit etorriko bada* modukoak, gaztelaniazko *si*-ren eraginez) Aramaion ez da gertatzen (*estakitt etorriko dan*).

## 11) Aldaera lexikoak

Besteren artean, Aramaion aldaera hauek ditugu: *afixa* 'habia', *etxeiñ*/*etxoiñ*, *etziñ*, *fratel*, *fusturi* 'justuri, inusturi', *gaiñ*, *gili-gili*, *gutxi*, *igeri*, *ittufiñ* 'itogin', *ixegi*, *komunio/komonio*, *mutur*, *nar* 'lahar', *olaxe/olaxen*, *olixo*, *pilloxik*, *txiñddurri*.

## 12) Lexikoa

Hemen ipiniko ditugunak baino askoz gehiago dira Bizkai aldean eta Aramaion desberdin diren hitzak, edo batean bai eta bestean erabiltzen ez di-

renak. Guk batez ere Aramaion erabili bai eta Bizkai alde gehienez erabiltzen ez diren batzuk ipiniko ditugu: *anpor* ‘enbor’, *areka*, *begitentziño* ‘begitazio’, *beinke*, *belakuen* ‘berehala’, *beti be* ‘lantzean behin’, *etxaflero* ‘suziri’, *garraz* ‘sendo, handi’, *iñola be* ‘antza denez’, *isketa* ‘hizketa’, *isugarri*, *jirau* ‘moldatu’, *ninguno* ‘eragozpen’, *poto* ‘zulo’, *pusketu* ‘puskatu, apurtu’, *samur* ‘erraz’, *takarraran* ‘arineketa’, *trill eiñ* ‘topo egin’, *txirritola* ‘argizagi’, *txixegure* ‘txizalari’, *txixera* ‘zizare, har’, *urdeiazpiko*<sup>9</sup>.

Mendebalean nahiko zabaldurik dauden beste hauek ez dira gaur egun Aramaion erabiltzen: *aitita*, *amaitu*, *amatau*, *aratoste*, *atondur*, *enparau*, *lantzean behin*, *marasma*, *mozolo*, *olgau*, *ortuari*, *ostarku*, *udagoen*.

Horien ordez, beste hauek dira ohikoenak: *aittejaun*, *akabau*, *itxungi*, *karnabal*, *apaiñddularreglau*, *beste/gañetiko*, *tia*, *nosbaitten/beti be*, *amarratz*, *ontz*, *jolas eiñ*, *berdura*, *arkoiris*, *urasken*.

## 2. Aramaioko euskararen eta Oletakoaren arteko desberdintasunak

Esana dugu Aramaioko euskara inguruko herri batzuekin (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Aramaioko Oleta auzoarekin) erkatu ondoren, antzekotasun handiagoa erakusten duela Debagoieneko herriekin Aramaioko Oleta auzoarekin baino. Aramaioko euskararen deskribapena egiterakoan, han esandakoak ia gehienez berdin balio du Leintzeko euskararako ere. Oletarekin ere, jakina, berdintasunak gehiago dira desberdintasunak baino, baina hemen desberdintasunak agertuko ditugu.

Arloz arlo joango gara:

### 2.1. Fonologia

#### 1) *-tza + a > -tzaie*

Aramaion hitz batzuetan *-tzaie* da bilakaera: *bedartzaie*, *bisitzzaie*, *labrantzaie*. Oletan ez daukagu holakorik: *bedartzie*, *bisitzie*, *labrantzie*.

#### 2) *eu > au*

Aramaion ez bezala, Oletan indar handia du bilakabide honek: *auri*, *nau*, *gau*.

#### 3) Bustidura

Bustidura nahiko sistematikoa da bai Aramaion bai Oletan, baina batez ere *t* eta *z* kontsonanteei dagokienez, Oletan sistematikoagoa: *kapittal*, *milittar*, *txikitto*, *txilibitto*, *pixu* ‘etxebizitza’, *bixi*, *ixen* ‘izan & izen’, *ixera*, *ixerdi*, *gixon*, *kaleti xier* (Aramaion *kapital*, *militar*, *txikito*, *txilibito*, *viso*, *bisi*, *isen*, *isera*, *iserdi*, *gison*, *kaleti sier*).

#### 4) [x] ebakera

Aramaion ebakera sistematikoa [x] da, hots, belare frikari ahoskabea. Oletan ere bada ebakera hau zenbait mailegutuan (*jente*, *jaboi*, *erloju*, *manejau*, *prijiru*), baina gehienetan sabaiaurreko frikari ahostuna da ([ʒ]): *dxagi*, *dxantzi*, *dxardun*, *dxareinñ*, *dxako*, *dxuau*, *dxak*...

#### 5) /i + V/ arteko ‘x’ [ʃ] epentesia (Oletan [ʒ])

Aramaion eta Oletan bietan betetzen da bilakaera hau, baina Oletan indar handiagoa du. Esaterako, ondoko hitz hauetan Oletan epentesia sartzen

<sup>9</sup> Aramaion *pernill* ere erabiltzen da.

da, baina Aramaion ez: *desgrasidxa, esperientzidxa, malisidxa, lisentzidxau, anaidxie, gustidxen, bisidxo, negosidxo, ofesidxo, sosidxo, bidxotz*.

6)  $VdV > VrV$

Esan dezakegu bilakaera hau bietan gertatzen dela, baina gure datuen arabera azkarragoa da Aramaion Oletan baino. Aramaioko adibideak ditugu hauek: *meseres, desperiru, iresu, irek, erira, libertare, baratos, isengo rie, segiran* (Oletan *mesedes, despedidu, idesu, idek, erida, libertade, badatos, ixengo die, segidan*).

7)  $ez + z$

Aramaion normalean  $z > tz$  /  $ez$  araua betetzen bada ere (*etzan, etzabitz*), batzuetan  $z > \emptyset$  /  $ez$  araua betetzen da (*esa (<ez zara), esabitz*). Oletan azken arau hau da sistematikoki betetzen dena: *esa, esabitz*.

8) Aldaerak

Bokalismoa edo kontsonantismoa dela eta, badira hizkera hauen arteko zenbait aldaera desberdin. Ezkerrean Aramaioko aldaera eta eskuinean Oletakoa jarriko ditut. Hauek dira garrantzitsuenak: *bañel/baye, etziñ/letzun, gutxil/gitxi, igeril/uger, olixo/oridxo, pikul/iko*.

Beste batzuk garrantzi gutxiagokoak dira: *ageratz/agarratz, bakallau/makallau, elexalelix, erestun/elestun, eskuttur (& eskittur)/eskubittur, e t x a f l e r o / etxeplego, fratel/plater, ikutu/ukutu, iñuntz/iñontz, ittufiñ/ittusiñ, ixo 'eho'leidxo, kaldara/galdara, kiñerra/kiñarre, komunio/komuniño, korapill/morapill, ondion/ondiñon, odoldui (& oroldi)/odolgi, olaxen/olantxe, pillosik/billusik, sartakiña/sartan, tolestau/tolostu*.

## 2.2. Izenaren morfologia

1) Ablatiboko eta motibatiboko aldaerak

Aramaion aldaera *-k* gabeak eta aldaera *-k*-dunak erabiltzen dira; Oletan soilik *-k* gabeak.

2) Destinatiboko atzizkiak

Aramaioko morfema erabiliena *-endako* da (eta *-entzako* ez da arrotza); Oletan *-entzako*.

Izenordainetan Aramaion aukera bat baino gehiago dago: *-tako* (*ni(r)etako*) eta *-tzako* (*niretzako*); Oletan bakarra: *-tzako* (*niretzako*).

3) Hurbiltze-adlatiboko morfema

Kasu batzuetan *-rutze* da atzizkia hizkera bietan: *onutze, gorutze*.

Bestela, Aramaion *-rutze* (*etxerutze, Bilborutze*), eta Oletan *-antza* (*etxeantza, Bilboantza*).

4) Bizidunen ablatiboa

Aramaion bizidunen ablatiboaren orde, bizigabeen ablatiboa (*mutikuek katuetati urriñ oba*) edo soziatiboa (*estot espera esebe alabias*) erabiltzen dira.

Oletan bizirik dago bizidunen ablatiboa: *mutikuek katuegandi urriñ oba, alabiegandi estot etxeitten eser*.

5) Erakusleen pluraletakoa *-i-*

Aramaion erakusleen pluraletan ia beti *-i-* agertzen da (*oneik, areik (& aik), oneikiñ*), baina Oletan ez (*onek, arek, onekiñ*).

6) Erakusleak: *ontan, ortan, artan*



Zertan galderaren erakusleen ordainak *ontan*, *ortan*, *artan* dira Aramaion; Oletan, ostera, *onetan*, *orretan*, *atan*.

7) Galdetzaileetan *nor* / *zein*

Aramaion biak erabiltzen dira; Oletan, ostera, *nor* bakarrik.

8) *-duil/-doi/-di* atzizkia

Aramaion *-doi* da erabiliena (*gastañoi*, *arestoi*, *arteroi*). Eta *-di* ere jaso dugu (*piñuri*). Oletan adibide gehienak *-dui*-renak jaso ditugu (*aresdui*, *kastanadu*), baina beste bienak ere bai (*artedoi*, *piñuri*).

### 2.3. Aditzaren morfologia

1) *joan*: *-oa-* > *-oia-* > *-oie-*

Aramaion *-i-* bokala tartekatzen da erroaren erdian: *-oa-* > *-oie-*: *noie*, *doie*.

Oletan desberdin egiten da: *nue*, *due*.

2) Aditz trinkoak: *-a/-e-* erroa iraganaldian

Aramaion *-a-* erroa da erabiliena (*natorren*, *gabitzen*, *aukien*), eta inoiz *-e-* ere bai (*gekixen*, *eukien*). Oletan *-e-*: *genkidxen*, *eukien*.

3) \**erautsi*: *darutzet*, *darutzo*...

Aramaion 'ari izan, jardun' adiera duen aditz honen aztarnak besterik ez da geratzen: *darutzet*, *darutzo*. Adibidea: *Simonek bajarutzek bedarra ebaitten*.

Oletan ez dugu holako adizkirik jaso.

4) Aditzak objektu pluralarekin komunztadura

\**edun* aditzean izan ezik, Aramaion aditzak ez du objektu pluralarekin komunztadurarik egiten (*jakun* 'zitzaigun/zitzaizkigun', *daki* 'daki/dakizki'). Oletan, ostera, bai: *dxakusen* 'zitzaizkigun', *dakis* 'dakizki'.

5) Pluralgileak

Pluralgileak, esan dugunez, Oletan erabiltzen dira normaltasunez:

*-z*: *dosues* 'dituzue', *duskus* 'dizkigute'.

*-z-*: *genduasá* 'genitian', *daigusen* 'ditzagun'.

6) Iraganaldiko *-n* >  $\emptyset$

Bilakaera hau Oletan gertatzen da, baina ez Aramaion. Iraganaldiko *-n-* galteza alokutiboko adizkietara mugatzen da: *ñoa* 'nian', *dxustá* 'zidaan', *dxoá* 'zian'.

7) Emakumezko sexu-marka beharrezko ez denetan

Aramaion sarritan emakumezko adizkiari sexu-marka ezartzen zaio beharrezko ez denean, gizonezkoa eta emakumezkoa desberdin eginez: *itzen* / *itzenan*, *euan* / *euanan*, *ittuan* / *ittunan*.

Oletan ez dugu holakorik jaso.

8) Aditz-izenak

Aditz-izenak egiteko Aramaion zein Oletan atzizki berdintsuak erabiltzen dira, baina badago desberdintasun bat: Aramaioko *-ketan* atzizkiaren orde (eskaketan, lotzaketan) Oletan *-tzen* eta *-tuten* dugu (*eskatzen*, *lotzattuten*).

9) Jokamolde bereziko aditzak

Zenbait aditzetan jokabide desberdinak daude Aramaion eta Oletan:

a) *Asarretu*, *berotu* eta *soratu* aditzak Nor eta Nor-Nori jokatzeko dira Aramaion; Oletan Nor bakarrik.

b) *Ekiñ* aditza Nor eta N-N-N jokatzeko da Aramaion; Oletan N-N-N bakarrik.

c) *Pentzau* Nor-Nori eta Nor-Nork Aramaion; Oletan Nor-Nork baka-  
rrik.

10) Adizkiak

Adizkietan dago, beharbada, Aramaio eta Oletaren arteko alderik han-  
diena, gorago aipatutako arrazoiengatik: pluralgileak, alokutiboa, aditz trin-  
koen jokaera desberdina... Hemen emandako arauetatik kanpoko adizki  
desberdin batzuk eskainiko ditugu (beltzez Euskara Batuko forma, eta ondo-  
ren Aramaiokoa eta Oletakoa, / batez bereizita):

**genuen:** *gen, geuen, gauen / gendun*

**genituen:** *gittu(e)n / gendusen*

**zenuen:** *sen, seuen, sauen / sendun*

**zuen:** *euén, auen / eban*

**zuten:** *euen, auen, auien / eben*

**dugu:** *dou, dau / du*

**dakizu:** *dakitzu / dakisu*

**balitzaio:** *balitxako / balikidxo*

**ditu:** *dittu / daus*

**zagok:** *jak / dak*

**zabiltzak:** *jabitzek / dxabisek*

**darabilzu:** *dabitzu / dabixu*

**darabilte:** *dabixe / dabilte*

#### 2.4. Morfosintaxia

Desberdintasun gutxi dago morfosintaxian:

1) *Bi* zenbatzailearen kokapena

Oletan mendebaleko araua ondo gordetzen da, eta *bi* zenbatzailea izena-  
ren eskuinetara kokatzen da: *gixon bi, urte bikue, alde bidxetati...*

Aramaion ere joera nagusia hori bada ere, izenaren ezkerretara ere joan  
daiteke (*bi alaba, bi lagun*).

2) Aurkaritza adierazteko *besterik, baño...*

Aramaion *besterik* soilik erabiltzen da, eta Oletan *besterik* eta *baño*.

3) Perpaus kontzesiboak

Egituren artean, badira *bi* Aramaion erabiltzen direnak eta Oletan ez: a)  
Partizipioa + *-aittik*, eta b) *Nahiz* + partizipioa.

4) Moduzko perpausak

*-n letxe* egitura bada Aramaion (*gerra-denporan egon sanien letxe*), baina ez  
Oletan.

#### 2.5. Lexikoa

Lexikoan ere bada desberdintasunik Aramaio eta Oletaren artean. Ara-  
maio sarritan Debagoieneko herriekin dator bat, eta Oletan hobeto gorde di-  
ra Bizkai aldeko hitzak. Nire lekukoaren arabera, Oletan ez dira erabiltzen  
Aramaion jaso ditudan honako hitz hauek: *aittejaun, ala be* 'batez ere/hala  
ere', *aldar, aldiko, aleretxi, alporja* 'alproja', *altzi, amandre, amorraiñ, antxu-  
me, areka, arrauki, arronka* 'erronka', *asipena(k), auntz-erdera, aurki* 'behar-  
bada', *begitentziño, beinke, bela* (& *belakuen*) 'berehala', *benipeiñ, berbaldun,  
bolara, demas, demaseko* 'egundoko', *dollor* 'zeken, xuhur', *eskutau, fristixa,  
fusturi* 'trumoi', *garbatu, garranga* 'izotz-kandela', *garratz* 'sendo, handi', *ges-  
to* 'gaizto', *iñola be* 'antza denez', *irestu* 'tximista', *isentau, isketa, isugarri,*

*itxungi, jareñ, jolas (eñ), kibista, lan, ma(k)iña bat* ‘asko’, *mosu* ‘aurpegi’, *nagi, narrugorrixen, narrusendo, nasi* ‘nahasi, batera’, *ninguno* ‘eragozpen’, *ordeilordai, politto* ‘astiro’, *potol/potolo* ‘zulo’, *puskat, pusketu, satar* ‘itsusi’, *siero* ‘zeharo’, *susuma* ‘higuin’, *trill eñ* ‘topo egin’, *txirritola, txixera* ‘zizare’, *urasken, urdeiaspiko*.

Beste hauek Oletan erabiltzen dira, baina Aramaion ez: *aittitte, amatau, ar* ‘zizare’, *arrankai* ‘amuarrain’, *astiro, enparau(ek), erregular* ‘dirudienez’, *gana onas* ‘gogoz’, *ixeko, lei* ‘izotz’, *lengusiña, lenkusu, likerraldo* ‘izotz-kandela’, *motz* ‘itsusi’, *olgau, olgeta, oñestu* ‘tximista’, *urutzen, urresuri* ‘zilar’.

Jakina, beste asko ere izango dira, baina hauek dira inkestan jaso ditudanak.

## BIBLIOGRAFIA

- ASKOREN ARTEAN, 1998, *Arrasateko euskara*. Arrasateko Udala.
- ATUTXA, I., 1995, “Euskara”, in J. Urkiza (arg.), 215-252.
- AURREKOETXEA, G., 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Bilbo: EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- , 1996, “Hizkerak banatzeko ezaugarriez”, *ASJU* 30, 127-143.
- , 1997, “Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak”, *Uztaro* 23, 87-94.
- AURREKOETXEA, G. & Videgain, X., 1993, “Euskal Herriko Hizkuntza Atlas. Galdesorta”, *Euskera* 38, 529-647.
- AZKUE, R. M., 1969a [1905-6], *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- BURGETE, X. & Gaminde, I., 1991, *Otxandioko euskaraz*. Bilbo.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- , (arg.), 1998a, *Nafarroako hizkerak*. Bilbo: UEU.
- , 1998b, “Zer dago dialektologiaren gibelean”, in Camino, I. (arg.), 111-144.
- CHAMBERS, J. K. & Trudgill, P., 1994 [1980], *La dialectología*. Madrid: Visor.
- EIBARKO ADITZ-BATZORDIA, 1998, *Eibarko aditza*. Eibar: Eibarko Udala.
- ELEJALDE, J. M., 1989, *Ayer y hoy del valle de Aramaiona*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- ELEXPURU, J. M., 1996, *Bergara aldeko lexikoa*. EHUko Doktoradutza Tesi argitara gabea.
- ELORTZA, J., 1994, “Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 465-477.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- EROSTARBE, A., 1994, “Aditz izenak Oñatiko euskeran”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 495-517.
- ETXABE, K. & Garmendia, L., 2003, *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- ETXEBARRIA, Juan M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*. Zornotza: Ibaizabal.
- EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Lehen Urratsak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1999a, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1: Osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 2000, “Hiztegi Batua”, *Euskera* 45, 2000-2, 477-757.
- GAMINDE, I., 1988, *Ahozko bizkaieraz*. Bilbo: Bizkaiko AEK.
- , 1992, *Urduliz eta Gatikako Herri Hizkeren Azterketa Linguistikoa* [Deustuko Unibertsitatean irakurritako doktorego tesia].
- , 1995, *Bizkaieraren azentu-moldeez*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- , 1997, “Mendebaldeko azentuak”, in Askoren artean, *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkarte.
- , 1998, *Euskaldunen azentuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- , 1999a, “Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaraz”, *FLV* 81, 241-262.
- , 1999b, *Bakio barbarik berba*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa & Bakioko Udala.

- , 2000, “Zamudioko euskararen soinu egituraz”, in Askoren artean, *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkarte.
- , 2001, “Meñakako berba konposatuen azentuaz”, *FLV* 86, 33-47.
- , 2002, “Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan”, *Euskalingua* (www.mendebalde.com/euskalingua). Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- GAMINDE, I. & HUALDE, J.I., 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* 29-1, 175-197.
- GARATE, G., 1995, “Bizkaiera”, in J. Urkiza (arg.), 183-214.
- , 1996, “Bizkaiera eta gipuzkera”, *Jakin* 92, 89-103.
- , 2004, “Bizkaiera”, *Karmel* 2004-3, 52-71.
- GARMENDIA, J., 1978, *Apuntes etnográficos del valle de Aramayona*. Gasteiz: Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria.
- GÓMEZ, R. & LAKARRA, J. A. (arg.), 1994, *Euskal Dialektologiako Kongresua. (Donostia, 1991ko irailaren 2-6)*. *ASJU*ren gehigarriak-28. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- HUALDE, J. I., 1989a, “Acentos vizcaínos”, *ASJU* 23-1, 275-325.
- , 1989b, “Fonología léxica y postléxica, con especial referencia a la lengua vasca”, *ASJU* 23-2, 651-662.
- , 1991, *Basque Phonology*. London-New York: Routledge.
- , 1997, *Euskararen azentuerak*. *ASJU*ren gehigarriak-42. Donostia-Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HUALDE, J. I. & BILBAO, X., 1992, *A phonological Study of the Basque Dialect of Getxo*. *ASJU*ren gehigarriak-29. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- HUALDE, J. I. & ELORDIETA, G. & ELORDIETA, A., 1995, *The Basque dialect of Lekeitio*. *ASJU*ren gehigarriak-34. Bilbo-Donostia: EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- HURTADO, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- IZAGIRRE, K., 1970, *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*. *ASJU*ren gehigarriak-7. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- KNÖRR, H. & ZUAZO, K. (arg.), 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*. Gasteiz: Eusko Legebiltzara.
- LAKARRA, J. A., 1981, “Barrutiaren edizio kritiko baterako”, *ASJU* 15, 121-156.
- , 1986, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20-3, 639-681.
- LARRAÑAGA, J., 1998, *Antzuolako hizkera*. Antzuolako Udala.
- MITXELENA, K., 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 289-313.
- , 1981b, “Encuestas lingüísticas en el País Vasco”, *Euskera* 26, 133-145.
- , 1985 [1961], *Fonética histórica vasca*. 3. arg.. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 1987–, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca* (2 liburuki). *ASJU*ren gehigarriak-10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 1991, “De dialectología vasca”, *FLV* 58, 179-203.
- MOHANAN, K. P., 1986, *The Theory of Lexical Phonology*. Dordrecht: Reidel.
- MONTOYA, E., 2004, *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- OÑEDERRA, M. L., 1990, *Euskal fonología: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Leioa: EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- PRECIADO, J.M., 1994, *Kolorea herri euskaldun batean. Galdesorta baten diseinu eta aplikazioa Aramaioko bi muturretako belaunaldietan*. Leioa: EHU.
- PUJANA, P., 1975, “Oleta Aramaio ote da?”, *Karmel* 1975-4, 52-56.
- , 1977, *Oletako euskal aditza. El verbo vasco de Oleta (Araba). Flexiones ika del Valle de Leintz (Gatzaga, Eskoriaza, Aretxabaleta y Arrasate), del Valle de Angiozar (Bergara), de Zeanuri y de la zona de Mungia*. Diputación Foral de Alava.
- , 1995, “Hikako berbetea Aramaioko Muxika-Olaetan”, in J. Urkiza (arg.), 261-275.
- SALABERRI MUÑOZA, P., 1995, “Hizkuntz errealitateaz”, in J. Urkiza (arg.), 253-260.
- SALABURU, P., 1984, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonología* (2 liburuki). Leioa: EHU.
- SIADeco, 1998, *Aramaioko azterketa soziolinguistikoa 1998*. Argitara gabea.
- TRASK, R. L., 1997, *The History of Basque*. London: Routledge.

- TRUDGILL, P., 1986, *Dialect in contact*. Oxford: Blackwell.
- TXILLARDEGI, 1982, *Euskal Fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- , 1984, *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.
- UEU, 1987, *Euskal dialektologiaren hastapenak*. 2 arg. Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- UNED, 1988, *Bergarako euskera*. Bergara: UNED.
- URIARTE, J. A., 1995, *Fruizko hizkera: azterketa linguistikoa* [Deustuko Unibertsitatean irakurritako doktorego tesia].
- URIBARREN, P., 1972, “Aramaiona’ko euskeraren berezitasunak, euskal idazleak, eta euskera-  
ren egoera eta etorrera”, *Euskera* 17, 157-167.
- , 1975a, “Aramaio’n euskera noiz arte?”, *Karmel* 1975-1, 38-43.
- , 1975b, “Aramaio Araba ote da”, *Karmel* 1975-2, 52-57.
- , 1977, “Aramaio-ko herria burua jasotzen”, *Karmel* 1977-1, 69-73.
- , 1995, “Toponimia”, in J. Urkiza (arg.), 277-323.
- URKIZA, J. (arg.), 1995, *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*. Markina: Ed. El Carmen.
- VENY, J., 1985, *Introducció a la dialectologia catalana*. Barcelona: Enciclopèdia Catalana.
- VIAPLANA, J., 1996, *Dialectologia*. València: Universitat de València.
- YRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- , 1992, *Morfología del verbo auxiliar vizcatno* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia & BBK.
- ZUAZO, K., 1998a, “Arabako euskara”, in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 125-189.
- , 1998b, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78, 191-233.
- , 1999a, “Arabako euskararen kokagunea”, *FLV* 80, 165-184.
- , 1999b, *Arabarrak Euskararen Herrian*. Gasteiz: Arabera.
- , 1999c, *Deba ibarreko euskera*. Deba ibarreko udalak.
- , 2000a, *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- , (arg.), 2000b, *Dialectologia gaiak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- , 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- ZUAZO ETA BADIHARDUGU EUSKERA ALKARTIA, 2002, *Deba ibarretik Euskararen Herrira*. Eibar: BADIHARDUGU Euskera Alkartia.
- ZUBIRI, Y & E., 1995, *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker.

## LABURPENEA

Aramaioko euskararen azterketa egiten da lan honetan. Sarreran Aramaiori buruzko datu batzuk eman ostean, lana egiteko erabili diren zenbait irizpide metodologiko eskaintzen dira, eta oinarri teorikoak aipatu.

Ondoren, hizkera honen azterketa linguistikoa egiten da, honako atal hauek bereiziz: fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia eta morfositaxia.

Azkenik, ondorioetan, Aramaioko hizkeraren kokagunea zehazten da (mendebalarekin lotzen duten eta banatzen duten ezaugarriak emanez, eta baita Arabarekin lotzen dutenak), eta Aramaioko euskararen eta (Aramaioko auzo den) Oletakoaren arteko desberdintasunak seinatzen dira.

## RESUMEN

En este trabajo se ha investigado el euskera de Aramaio (Álava). En la introducción, después de ofrecer algunos datos de Aramaio, se hace mención de los criterios metodológicos utilizados, y se exponen las bases teóricas.

A continuación, se realiza el examen lingüístico de este habla, diferenciando los siguientes campos: fonología, morfología nominal, morfología verbal y morfositaxis.

Finalmente, en las conclusiones, se precisa la posición del habla de Aramaio (señalando las características que lo unen y lo diferencian del habla occidental, y las que lo unen a Álava), y se muestran las diferencias que hay entre el

euskera de Aramaio y Oleta (barrio de Aramaio colindante al pueblo vizcaíno de Otxandio).

#### RÉSUMÉ

Ce travail porte sur l'euskera d'Aramaio (Alava). Dans l'introduction nous trouvons, tout d'abord, quelques données sur Aramaio, pour passer ensuite aux critères méthodologiques utilisés et à l'exposition des bases théoriques. Nous allons effectuer un examen linguistique de cette langue, en faisant la différence entre les champs suivants: phonologie, morphologie nominale, morphologie verbale et morphosyntaxe.

Finally, in the conclusions, we specify the situation of the language of Aramaio (by indicating the characteristics that link it and differentiate it from the western language, and those that link it to Alava), and we show the differences that exist between the euskera of Aramaio and of Oleta (quarter of Aramaio next to the village of Otxandio).

#### ABSTRACT

This article studies the Basque language spoken in Aramaio (Alava). After providing some information about Aramaio, the introduction mentions the methodological criteria applied and explains the theoretical bases.

A linguistic study of this speech is then performed, differentiating between the following areas: phonology, noun morphology, verbal morphology and morphosyntax.

Finally, the conclusion pinpoints the position of the speech from Aramaio (highlighting the characteristics which link it and differentiate it from western speech and those which unite it to Alava) and the differences between the Basque from Aramaio and the Basque from Oleta (an outpost of Aramaio next to the Biscayan village of Otxandio) are described.